



ABERRI ESTATUTUAK 2025



2025eko ABERRI ESTATUTUAK

**Sabin Etxean, 2025eko abenduaren 9an egindako Ezohiko
Aberri Batzarrak onetsiak eta Vitoria-Gasteizen 2025eko
abenduaren 13an egindako IX. Batzar Nagusiak
berronetsiak.**

AURKIBIDEA

PRINTZIPIO OROKORRAK	7
ATARIKO TITULUA	9
I. TITULUA - ALDERDIKIDEAK	10
II. TITULUA - BERDINTASUNERAKO ETA INDARKERIA MATXISTAREN ETA GORROTO-ARRAZOIEN INDARKERIAREN AURKAKO PLANA	19
III. TITULUA - ALDERDIZALEAK	20
IV. TITULUA - EAJ-PNVren ANTOLAKETA	20
I. kapitulua - PRINTZIPIO OROKORRAK.....	20
II. kapitulua - URIETAKO, HERRIALDEETAKO ETA ABERRIKO ERAKUNDEAK	22
Lehenengo atala: Urietako erakundeak	22
Udal-eremukoko buru batzarren artekoa	23
Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa	25
Bigarren atala: Herrialdeetako erakundeak	28
Hirugarren atala: Aberri-erakundea	28
III. kapitulua - EUZKADIZ KANPOKO ERAKUNDEAK.....	28
IV. kapitulua - EUZKO GAZTEDI	30
V. kapitulua - HELDUAK	30
V. TITULUA - BATZARRAK	31
I. kapitulua - URIETAKO BATZARRAK.....	31
II. kapitulua - HERRIALDEETAKO BATZARRAK	33
III. kapitulua - ABERRI BATZARRA	35

IV. kapitulua - BATZAR NAGUSIA	41
VI. TITULUA - ALDERDIKIDEEI IRITZIA ESKATZEA	42
VII. TITULUA - BURU BATZARRAK	44
I. kapitulua - URI BURU BATZARRAK.....	44
II. kapitulua - HERRIALDEETAKO BURU BATZARRAK	46
III. kapitulua - EUZKADI BURU BATZARRA.....	47
VIII. TITULUA - BATZORDE SEKTORIALAK	50
IX. TITULUA - ORGANO JUDIZIALAK, ETA BERME- ETA KONTROLEKOAK	51
I. kapitulua - ORGANO JUDIZIALAK	51
Lehenengo atala: Aspektu orokorrak.....	51
Bigarren atala: Herrialdeetako epaimahaiak	51
Hirugarren atala: Justiziako Aberri Epaimahaia	52
II. kapitulua - BERMEAK ETA KONTROLA	53
III. kapitulua - KONTU-AZTERTZAILEAK ETA KONTU-AZTERTZAILEEN ABERRI BATZORDEA	54
Lehenengo atala: Aspektu orokorrak.....	54
Bigarren atala: Urietako kontu-aztertzaileak	55
Hirugarren atala: Herrialdeetako kontu-aztertzaileak.....	56
Laugarren atala: Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordea	56
X. TITULUA - KARGU PUBLIKOAK	57
I. kapitulua - UDAL-KARGU PUBLIKOAK	57
II. kapitulua - HERRIALDEETAKO KARGU PUBLIKOAK.....	58
III. kapitulua - ABERRIKO KARGU PUBLIKOAK.....	59

XI. TITULUA - ALDERDIAREN BARNEKO KARGUETARAKO ETA KARGU PUBLIKOETARAKO HAUTAGAIK AUKERATZEA	61
I. kapitulua - OINARRIZKO ARAUAK	61
II. kapitulua - DEIALDIAK.....	63
XII. TITULUA - KARGUEN EGIKARITZAREN MUGAK	64
I. kapitulua - AGINTALDIEN IRAUPENA	64
II. kapitulua - BATERAEZINTASUNAK	65
Printzipio orokorrak	65
Lehenengo atala: Erabateko bateraezintasunak	65
Bigarren atala: Alderdiaren barneko karguen arteko bateraezintasunak	66
Hirugarren atala: Alderdiaren barneko karguen eta kargu publikoen arteko bateraezintasunak	66
Laugarren atala: Bateraezintasunak kentzea	69
III. kapitulua - KARGUAK EZ METATZEA	70
XIII. TITULUA - EAJ-PNVren ANTOLAKETA EKONOMIKOA	71
XIV. TITULUA - KOMUNIKABIDEAK ETA IRUDIAREN BITARTEKOAK.....	74
XV. TITULUA - ABERRI ESTATUTUEN ERREFORMA	74
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	75
XEDAPEN IRAGANKORRA.....	76
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	76
ERANSKINAK.....	77

PRINTZIO OROKORRAK

1. SABINO ARANA GOIRIK sortutako Euzko Alderdi Jeltzaleari (EAJ-PNVri) JAUNGOIKOA ETA LEGE ZARRA goiburutik datorkio izena. Esaera horrek hauek uztartzen ditu: biziaren kontzepzio transzendente bat, eta euskal nazioaren baieztapena. Nazio horren izate politikoa haren subiranotasun nazional osoa berreskuratzearekin batera adieraziko da.

2. EAJ-PNVk honelaxe definitzen du bere burua: euskal alderdi abertzalea, euskalduna, demokratikoa, parte-hartzailea, plurala, akonfesionala, gizatiarra, europazalea, belaunaldien artekoa, askotarikoa eta berdinzalea, inklusiboa, eta aurrerabideari eta gizakiaren onerako diren zibilizazioaren aurrerapen guztiei irekia.

3. EAJ-PNVk Euzkadi du aberri eta nazio, subiranotasun politikoko subjektu gisa. Euzkadi Pirinioetako bi aldeetara zabaltzen den lurraldea da, eta berean euskal herria bizi da, beraren zazpi herrialde historikoek osatua. EAJ-PNVk Ikurrina dauka euskal herriaren bandera, euskara du hizkuntza propioa eta ofiziala, eta Euzko Abendaren Ereserkia du Euzkadiren ereserki nazionala.

4. EAJ-PNVk euskara du euskal hizkuntza nazionala, eta erantzukizun nazionala eskatzen du hura normalizatzeko; normalizazio horren oinarriak euskal herritarren hizkuntza-eskubideen babes eta bultzada izan behar du, eta EAJ-PNVko arduradun publikoek eta Alderdiaren barneko arduradunek euskal herritarren zerbitzuan jardun behar dute. EAJ-PNVk bere egiten ditu hizkuntza-normalizazio eraginkorraren printzipio gidariak: euskararen aldeko ekintza positiboa, euskara baita euskaldunen hizkuntza propioa, gutxiengoduna eta gutxitua, eta progresibitatea, zeina beharrezkoa baita eraginkortasunez jarduteko, betiere euskal gizartearen komunikazio-hizkuntza izan dadin.

5. EAJ-PNVk defendatu eta egikaritu egiten du emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza parekidea Alderdiaren barneko karguak eta kargu instituzionalak aukeratzeko prozesu guztietan.

6. EAJ-PNVk xede hauek ditu:

a) Euskal proiektu politiko nazionala gauzatzeko tresna izatea.

b) Euzkadiko herritarren aurrerabide eta garapen handiena lortzea gizartean, ekonomian, politikan, kulturen eta gainerako arlo guztietan, betiere elkartasuna, jasangarritasuna eta aukeraberdintasuna abiapuntutzat hartuz.

c) Balioak eta praktikak sustatzea eta zabaltzea, zeinek lagunduko baitute gizartea osatzen duten pertsona guztien arteko erabateko berdintasunean oinarritutako gizartea lortzen; eta hori lortzeko modu inklusiboan eta interseksionalean jokatu da, edozein delarik ere pertsona horien sexua, generoa, sexu-orientazioa, jatorri etnikoa, erlijioa edo jatorriko lekua, betiere inor diskriminatuko ez duen gizarte baten alde eginaz; horren guztiaren helburua, berriz, hauxe da: gizartea osatzen duten pertsonen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izatea.

d) Euskal herritarren prestakuntzarako eta partaidetza politiko aktiborako bide izatea.

e) Gune izatea, proiektu politiko nazionala eta haren estrategia politikoa etengabe hausnartu eta berritzeko.

f) Botere politikora heltzea, batez ere, instituzioetan egonez, horiek baitira Alderdiaren proiektua errealitate bihurtzeko bide.

g) Iritzi publikoan etengabe jardutea, herritarren eta gizarte-taldean partaidetza suspertzea, betiere euskal gizarteak bere etorkizunaren eraikuntzan duen protagonismoa errespetatuz.

h) Jarraibide politikoak finkatzea, eta berak instituzio publikoetan dituen ordezkariak orientatu, lagundu eta kontrolatzea.

i) Karguei bereziki eta alderdikideei oro har portaera jakin bat eskatzea, zeinaren oinarria izango baita haien eguneroko zereginetan zintzotasuna, erantzukizun etikoa eta gobernu ona izatea. Konpromiso hori unean-unean indarrean dagoen EAJ-PNVren Etika- eta Jokabide-kodean islatuko da, zeina argitaratuko baita EAJ-PNVren webgunean.

Alderdiko kargu publikoen kudeaketa gardentasun-printzipioan oinarrituko da; horren irismena, gutxienez, unean-unean lege bidez zehazten dena izango da.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.— Euzko Alderdi Jeltzalearen hizkuntza euskara da. Horretaz gainera, beste hizkuntza batzuk ere erabili ahal izango dira, gizarte-beharrizanei, tokian tokiko beharrizanei eta gobernu hobe baten beharrizanei erantzuteko.

2. artikulua.— EAJ-PNVk ikurrina du euskal bandera nazional, euskal herriak, Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak hartua; ezaugarri hauek ditu ikurrinak: hondo gorria, itxoroski berdea eta gurutze zuria gainetik.

3. artikulua.— Era berean, hauexek dira EAJ-PNVren ezaugarriak:

1. Haren ikurra, eranskinetan emana, bi elementuk osatzen dute eta hauek dira: anagrama, koloreko bolak irudikatua, eta logotipoa, EAJ-PNV hitzak osatua; horrek babesgune bat izango du EAJ-PNVren markaren inguruan; gune horrek ez du beste elementu eraldatzaile ikusgarririk izango, ez testurik, ez marrazkirik, ezta apaingarrikerik ere. EAJ-PNVren irudi ikusgarriak haren historia osoan ordezkatu duten betiko kolore berdea, zuria eta gorria eramango ditu. Anagrama berdetik gorrira doa, eta logotipoak kolore beltza izango du.

Bozketa-orrietan, baimenduta dago ikurraren kolore bakarreko bertsioa erabiltzea; bertsio horrek tinta bakarreko ikurra ordeztu du, eta positiboan edo negatiboan joan daiteke.

2. EAJ-PNVren egoitza soziala eta helbidea Euzkadi Buru Batzarraren egoitza soziala eta helbidea izango dira, alegia, Alderdiaren sortzailearen jaiotetxeak: 48001 Bilbo (Bizkaia), Ibañez de Bilbao kalea 16.

3. Webgunea eta helbide elektronikoa eranskinetan daudenak dira.

4. Alderdiaren jarduketa-eremua hauxe da: Europa, espainiar estatua, autonomia-maila, foru- eta udal-eremua edota frantziar estatuko eremu baliokidea; izan ere, Alderdia eremu geografiko horietan egingo diren hauteskunde-prozesuetan aurkeztuko da, betiere unean-unean aplikagarri den legediaren arabera.

I. TITULUA

ALDERDIKIDEAK

4. artikulua.— EAJ-PNVkoa izateko, ezinbesteko baldintza da alderdikidea izatea.

EAJ-PNVko alderdikideak konpromisoa hartuko du, erakundearen barruan euskal askapen nazional eta soziala lortzen laguntzeko, eta eragile aktiboa izango da EAJ-PNVren barne-funtzionamenduan bezala haren ekintza politikoan.

5. artikulua.— EAJ-PNVren alderdikidea izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1. Pertsona fisikoa izatea, adinduna, eta eskaera kontzienteki, askatasunez eta bere borondatez egitea, betiere pertsona horrek eskaera hori komunikatzeko erabili duen modua edozein dela ere, eta berak behar dituen laguntza-bitartekoekin, unean-unean legez aplikatu beharreko betekizunak betez.

2. Beste ezein alderdi politikoren alderdikidea ez izatea.

3. EAJ-PNVren ideien aurkako izaera politikoko zein politiko-sozialeko beste erakunde batekoa ez izatea.

4. EAJ-PNVren ideologia onartu eta haren proiektu politikoaren defentsa publikoarekin konpromiso pertsonala hartzea.

5. Organo eskudunari alderdikidetzat eskatzea, haren onespena jasotzea eta Alderdikideen Erregistro Nazionalen alderdikide gisa erregistratua izatea.

6. EAJ-PNVren Etika- eta Jokabide-kodea sinatzea, zeina unean-unean indarrean dagoena baita eta EAJ-PNVren webgunean argitaratzen baita.

6. artikulua.— 1. Alderdikidetzat eskatu eta gauzatu beharko da eskatzailea bizi den lekuko uri erakundean edo, hori izan ezean, hurbilenekoan egin beharko da. Arrazoiak izanez gero, beste uri erakunde batean jaso ahal izango da alderdikidetzat, baldin eta uri buru batzar biak ados badaude; uri erakunde biok idatziz eskatuko

dute gertatutakoaren berri jasota gera dadila Alderdikideen Erregistro Nazionalean.

2. Alderdikidetza-eskabidea behar bezala bete eta sinatu egingo du interesdunak, alderdikidetuta gutxienez bi urte daramaten beste alderdikide biren babesa beharko du, eta uri erakundeko alderdikideei jakinaraziko zaie. Aldi berean, uri buru batzarrak eskabidearen kopia igorriko dio berari dagokion herrialdeko buru batzarrari eta Alderdikideen Erregistro Nazionalean formalizatuko du alderdikidetza-eskabidea edo herrialdeko buru batzarrari eskatuko dio bere izenean egin dezala.

3. Alderdikidetza onartzeko edo ukatzeko, uri buru batzarrak ebazpena hartuko du hiru hilabeteko gehieneko epearen barruan, eta eskatzaileari eta abal-emaile biei jakinaraziko zaie. Alderdiaren barneko hauteskunde-prozesuetan zehar epe hori eten egingo da eta ezin izango da ebazpenik eman. Ebazpenik ematen ez bada, eskabidea ukatutzat joko da. Onarpen eta ukapen guztiak, azken hauen barruan isilekoak sartuta, herrialdeko buru batzar eskudunari jakinaraziko zaizkio. Ukapenen kasuan, horien zio diren arrazoiak ere eman beharko dira.

4. Edozein alderdikidek uri batzarrera eraman dezake uri buru batzarrak alderdikidetza onartzeko edo ukatzeko hartutako erabakia; uri batzar horrek bi hilabeteko gehieneko epean hartu beharko du ebazpena.

5. Egoitza aldatzen bada, alderdikideak aldaketa horren berri emango dio uri buru batzarrari; beronek, era berean, helbide berriaren arabera eskumena duen uri buru batzarrari bidaliko dio haren fitxa. Alderdikidearen uri erakunde berriak derrigor onartu beharko du bera, antzinatasuna errespetatuz.

Salbuespenez, egoitza aldatzen duen alderdikideak lehenengo uri erakundean jarraitu ahal izango du, baldin eta erakunde biak ados badaude, eta horrek jasota geratu beharko du Alderdikideen Erregistro Nazionalean.

6. EAJ-PNV nahita utzi duten alderdikideek euren uri erakundearen bitartez bakarrik eskatu ahal izango dute Alderdian berriz sartzea, Alderdian baja benetan eman zuten egunetik bi urte igaro ondoren. Ondore horietarako, ez da borondatezko bajatzat hartuko, alderdikidearen lanbidearekin edo lanpostuarekin zerikusia izan dezaketen lege-eskakizunen ondoriozkoa dena.

Egoitza aldatu badute, ezinbestekoa izango da haiek baja eman zuten uri erakundearen txostena.

7. Uri erakunde bat zatitzen bada, zatiketa horrek jotzen dituen alderdikideak erregistratuko dira ezarritako mugapearen arabera euri dagokien erakundean, salbu eta, bidezko arrazoiengatik, uri buru batzar biek elkarren adostasunez baimentzen dutela horren aurkakoa egitea eta idatziz eskatzen dutela Alderdikideen Erregistro Nazionalan baimen horren idatzoharra egitea.

7. artikulua.— 1. Alderdikidetza-eskabidea herrialdeko buru batzar bakoitzak ebatziko du kasu hauetan:

a) Eskatzaileak aurretik EAJ-PNVtik kanporatu dituztenean, edo, Alderdian baja emanda, horri kalte handiren bat egin diotenean. Kasu horretan, kanporatzearen edo bajaren egunetik hiru urtek igaro behar izango dute, berriz sartzea eskatu ahal izateko.

Alderditik kanporatuak izan badira, herrialdeko buru batzarrak organo judizial zehatzaile eskudunari eskatuko dio zehapen horren oinarri izan diren arrazoi guztien txosten osoa. Kasu bietan, eskatzailea lehen zegoen uri buru batzarrari edo sartu nahi duen berriari, edo biei, eskatuko die idatzizko txosten bat, Alderdian baja eman zuenetik zer-nolako jardun politikoa agertu duen erakusteko.

b) Eskatzaileak beste alderdi bateko alderdikideak izan direnean, edota beste alderdi politiko baten eskutik hauteskundeetara aurkeztuak izan direnean edo kargu publiko bat egikaritzeko aukeratuak izan direnean.

c) Uri buru batzarrak, berak berezitat jotzen dituen arrazoiak direla eta, txostena herrialdeko buru batzarrari igortzen dionean.

d) Aurretik ere alderdikidetza eskatu eta hori ukatu zitzaionean. Herrialdeko buru batzarrak entzun beharko du zer dioen uri buru batzarrak, eskabidea ebatzi baino lehen.

2. Herrialdeko buru batzarraren ebazpenaren aurka, edozein alderdikidek aurkez diezaioke errekurtsioa herrialdeko epaimahaiari.

8. artikulua.— 1. Alderdikideen Erregistro Nazionala eta aktaliburua kudeatzea Euzkadi Buru Batzarraren idazkaritzaren ardurapean egongo da.

2. ALERNA Alderdikideen Erregistro Nazionale alderdikideen datu-basearen bidez edo haren ordezeko sistema baten bidez eramango da.

9. artikulua.— 1. Alderdikide bakoitzari bere uri buru batzarrak alderdikidetza-txartela eskuratuko dio. Era berean, euskarri fisiko edo digitalean emango zaizkio estatutu eta erregelamenduak, une horretan EAJ-PNVren proiektu politikoa finkatzen duten dokumentuak eta EAJ-PNVk unean-unean indarrean izango duen *Compliance Penal* edo Delituen Prebentzio Plana.

2. Alderdikide guztiei emango zaie Euzkadi Buru Batzarrak ezarritako Alderdikideen Harrera eta Prestakuntza Plana. Plan horrek nahitaez bete beharreko hasierako prestakuntza-ikastaro bat jaso beharko du gutxienez.

3. Prestakuntza-ikastaroak emango dira, alderdikideek EAJ-PNVren planteamendu ideologikoak, programa eta antolaketa zein diren jakingo dituztela bermatzeko.

10. artikulua.— Alderdikide guztiak berdinak dira eskubide eta betebeharretan, hargatik eragotzi gabe estatutu hauek ezartzen dituzten mugak.

11. artikulua.— Hauek dira alderdikidearen eskubideak:

1. Bere alderdikidetza egoki garatzeko beharrezkoak diren prestakuntza eta informazioa jasotzea.

2. EAJ-PNVren organo artezkariengandik informazioa jaso eta haien arreta eskatzea, horretarako jarritako antolaketa-bideen bitartez, Alderdiaren antolaketari eta jarduerari eragin diezaieketen arazo guztiei buruz.

3. Bere uri erakundearen batzarretan sortzen diren eztabaida, hausnarketa eta bozketetan parte hartzea, hitz egiteko eta boto emateko erabateko askatasuna duelarik.

4. Aukeratzea eta aukeratua izan ahal izatea EAJ-PNVren erakundeko edozein kargu, izendapen edo hautapenetarako.

5. Aukeratzea eta aukeratua izan ahal izatea kargu publiko baterako hautagai.

6. EAJ-PNVren berme-organoko eta organo judizial eskudunetara jotzea.

7. EAJ-PNVren erakundearen barneko bideak erabiltzea bere ideiak askatasunez adierazteko. Iritzi horiek argitaratzen edo zabaltzen ez badira, interesdunak organo eskudunaren justifikazio egokia jasoko du.

12. artikulua.— 1. Alderdikidearen eskubideak oso-osorik eskuratuko dira, bai Alderdiaren barneko karguetarako hautagarria izateko, bai EAJ-PNVn sartzea eskatzen dutenak abalatu ahal izateko, alderdikidetzaren urte bi, gutxienez, igaro eta gero, lanbide edo lanpostuarekin loturiko lege-eskakizunen ondoriozko bajaren osteko altaren kasuetan izan ezik; kasu horietan altak dakar alderdikideari baja-mota hori hartu zuen unean zegozkion eskubide guztiak berreskuratzea.

2. Alderdikidetzaren bi urteko antzinatasunaren eskakizuna ez da kasu hauetan aplikatuko uri erakunde bateko karguetarako hautagarria izateko:

a) uri erakunde sortu berriak direnean, baldin eta aurreko erakunde baten zatiketarik ez badatoz;

b) 100 alderdikide baino gutxiagoko uri erakundeetan, bi urteko antzinatasuna ez duten pertsonen kopurua uri buru batzarra osatzen duten kide guztien % 40 baino gehiago ez denean.

3. Buru batzarrek kontratatzen dituzten langileei eskatuko zaie gutxienez bi urte alderdikidetuta egotea; izan ere, langileok eskura izan ditzakete alderdikideen erregistroak, aktak, datu ekonomikoak edota buru batzarrak berak isilpekotzat hartzen duen dokumentazioa.

13. artikulua.— Hauek dira alderdikidearen betebeharrak:

1. Aberri-estatutuak eta herrialdeetako estatutuak, eta, era berean, horiek garatzen dituzten erregelamenduak zaintzea.

2. EAJ-PNVren organoek baliozkotasunez hartutako erabakiak betetzea, beraren erakundearen diziplina betetzea eta beraren helburuak lortzen laguntzea.

3. EAJ-PNVren proiektu politikoa, haren antolaketa eta barne-funtzionamendua zein diren jakin eta haiek zabaltzea.

4. EAJ-PNVren *Compliance Penal* edo Delituen Prebentzio Plana edo ordenamendu juridikoaren aurkako portaerak prebenitzeko eta gainbegiratzeko sistema jasoko duen dokumentua ezagutzea,

zaintzea eta betetzea. Une oro indarrean dagoen *Compliance Penal*a Alderdiaren webgunean egongo da argitaratuta, eta bera alderdikideei bidaliko zaie, berauek haren berri webgunean izan eta une oro bete dezaten.

5. Etika- eta Jokabide-kodea ezagutzea, zaintzea eta betetzea. Une oro indarrean dagoen etika- eta jokabide-kodea Alderdiaren webgunean egongo da argitaratuta, eta bera alderdikideei bidaliko zaie, berauek haren berri webgunean izan eta une oro bete dezaten.

6. EAJ-PNVren ekintza politikoan aktiboki parte hartzea.

7. Bere uri erakundearen batzarretara eta EAJ-PNVk deitzen dituen ekitaldietara joatea, salbu eta, lehenengo kasuari dagokionez, organo judizial eskudunak zehapen bat ezarri duela eta zehapen horrek batzarretara joatea galarazten duela.

8. EAJ-PNVk aurkezten dituen bere hautagaiei, edota alderdikideak izan ez baina EAJ-PNVk bermatzen ditueni botoa ematea.

9. EAJ-PNVren barruan onartu eta egikaritzea organo eskudunek agintzen dizkieten kargu, izendapen eta hautapenak, salbu eta organo horiek ontzat hartzen dituztela karguok onartzea eragozten duten arrazoiak.

10. Nahitaezko kuotak ordaintzea, salbu eta uri buru batzarrak ontzat hartzen dituela hori eragozten duten arrazoiak.

11. Euskara erabiltzea EAJ-PNVren barruan zein kanpoan, eta bera ikasten eta hitzez eta idatziz jakiten ahalegintzea.

12. Alderditik kanpo, kargu publiko baterako hautatua izateko aukera EAJ-PNVren buru batzar eskudunari jakinaraztea eta haren baimenik gabe ez onartzea.

13. EAJ-PNVren batzarretan edo beste organo batzuetan eztabaidatutakoa isilpean gordetzea.

14. Ez egitea Alderdiaren irudia zikinduko duen ekintza edo adierazpen publikorik.

14. artikulua.— EAJ-PNVn, baja borondatezkoa, nahitaezkoa edo lege-eskakizunen ondoriozkoa izan daiteke.

1. Borondatezkoa espresua edo isilekoa izan daiteke. Espresua da interesdunak berak askatasunez adierazten duenean bere uri buru

batzarrari edo bere herrialdeko buru batzarrari idazki bat aurkeztuz. Isilekoa da:

a) Nahitaezko kuotak ez ordaintzeagatik denean, behin uri buru batzarrak ordaintzeko egindako bigarren errekerimendua egiten duenetik hilabete igarota, edo, uri erakundeak kudeaketa ekonomikoa eta ondare-kudeaketa herrialdeko buru batzarrari lagatzeko erabakia hartu badu, herrialdeko buru batzarrak ordaintzeko egindako bigarren errekerimendua egiten duenetik hilabete igarota, salbu eta uri buru batzarrak uste duela badela arrazoirik ordainketa hori ez egiteko.

b) Alderdikideren batek, buru batzar eskudunak aurretiaz baimenik eman gabe, EAJ-PNVren izenean aukeratua irten zen udal-taldea, batzarkide-taldea edo legebiltzar-taldea edo talde parlamentarioa uzten duen kasuan.

c) Alderdikideren batek, herri-hautapeneko karguren batean dagoenean, EAJ-PNVz besteko hautagaitza aurkeztzen badu edo hori aurkeztzen laguntzen badu, buru batzar eskudunak aurretiaz baimenik eman gabe.

d) Alderdikideren batek EAJ-PNVz besteko alderdi politiko batek izendatutako kargu publikoa, izendapen askeko konfiantzakoa hartzen badu, buru batzar eskudunak aurretiaz baimenik eman gabe.

2. Nahitaezko baja organo judizial eskudunak erabakita bakarrik gerta daiteke, aldez aurretik diziplinazko espedienteari hasiera emanik, eta arrazoi hauetako batengatik izanik:

a) Izen-ematea burutzeko unean bete behar diren datuak nahita faltsutzeagatik.

b) Ez betetzeagatik 5. artikuluan xedatutakoa.

c) EAJ-PNVren diziplinaren aurka doazen edo iritzi publikoaren aurrean haren irudiari kalte egin dioten adierazpen edo jarduketa publikoak egiteagatik.

d) Jendaurrean EAJ-PNVren proiektu politikoaren aurka adierazpenak egiteagatik.

e) EAJ-PNVren organoek baliozkotasunez hartutako erabakien aurka era antolatuan jarduteagatik, Alderdiaren barneko bideetatik

kanpo eta kargu publiko batez edo Alderdiaren barneko kargu batez edota komunikabide sozialez baliatuta.

f) Norberari alderdikide gisa dagozkion betebeharrak ez betetzeagatik, hots, 13. artikulukoak, salbu eta artikulua horren 6. eta 7. apartatuetaoak.

g) *Compliance* eta Etika- eta Jokabide-kodea ez betetzeagatik, EAJ-PNVren irudi publikoari kalte larria eraginez.

3. Lege-eskakizunen ondoriozko baja horrelakotzat hartuko du uri buru batzarrak beren-beregi erabakita; horretarako, bajak ukitutako alderdikideak eskabidea egin beharko du aurretik; hori horrela izango da, alderdikide batek lanbide edo lanpostu bat eskuratu eta, arau juridikoren bat dela bide, ogibide horretan jarduteko derrigorrezkoa denean alderdi politikotako kidea ez izatea.

4. EAJ-PNVko alderdikideen edo organoen ekintzen edo ez-egiteen ondoriozko diziplinazko arau-hausteak, haren estatutuen eta erregelamenduen aurkakoak badira, organo judizialek oso astuntzat, astuntzat, ez hain astuntzat eta arintzat kalifikatuko dituzte, urratutako eginbeharraren izaera eta eragindako eskubidearen edo egindako kaltearen garrantzia kontuan hartuta.

Arau-hausteengatik ezin izango da diziplina-zehapenik jaso, organo judizial eskudunak zentzu horretan emaniko ebazpen arrazoituaren bidez ez bada, eta diziplina-prozeduraren arabera egin beharreko espedienteak ireki ondoren; EAJ-PNVren alderdikide batek edo horretarako eskubidea duen EAJ-PNVren barneko organo batek proposatu behar izan du espediente hori; edozelan ere, bestelako erantzukizunak indarrean iraungo dute, eta bermatu egingo da alderdikideak egitateen berri jasotzeko duen eskubidea, bai eta zehapenak ezarri baino lehen entzuna izateko duen eskubidea ere.

Arau-hauste berberagatik inola ere ezin izango da zehapen nagusi bat baino gehiago ezarri.

5. Salbuespenez, Euzkadi Buru Batzarrak EAJ-PNVren irudiari ageriko kalte dakarkion delituagatik instrukzio fasean ikertua den alderdikidearen alderdikidetza kautelaz etetea erabaki ahal izango du, alderdikideari entzun ondoren. Kautelazko etetea automatikoa izango da ahozko epaiketa hasteko autoa ematen bada eta ustelkeriarekin lotutako delitu-egitate bat bada.

Era berean, kautelazko etetea automatikoa izango da baldin eta alderdikide bat genero-indarkeriako edo sexu-askatasunaren aurkako delitu batengatik ikertua bada, eta dokumentu hauetako baten bidez egiaztatu ahal bada:

— Indarrean dagoen babes-agindua, edo Fiskaltzaren txostena, zeinak adierazi behar baitu badagoela zantzurik eskatzailea genero-indarkeriaren biktima dela eta egilea alderdikidea dela, harik eta babes-agindua eman arte.

— Kautelazko neurri penalak erabaki dituen ebazpen judiziala, baldin eta neurri horiek indarrean badaude.

— Ebazpen judiziala, zeinak egiaztatzen baitu ezen alderdikideak genero-indarkeria egikaritu duela edo sexu-askatasunaren aurkako delitu bat egin duela.

Oro har, epai irmo baten bidez kondenatuak izan diren alderdikideei Alderditik kanporatzeko zehapena ezarri ahal izango zaie, Euzkadi Buru Batzarrak Justiziako Aberri Epaimahaiaren aurrean alderdikidea kanporatzeko hasiko duen espediente dela bide.

Absoluzio-epaia ematen bada edo jarduketak artxibatzen badira, alderdikideari etetea kenduko zaio eta eskubide guztiak itzuliko zaizkio, eta hori behar bezala iragarriko da.

Arestian aipatutako kasuetako edozeinetan, interesdunak EAJ-PNVren txartela eman beharko dio bere uri erakundeari edo bere herrialdeko buru batzarrari. Hala egiten ez badu, idatziz eskatuko zaio txartela eman dezala.

15. artikulua.— 13. artikulua 6. eta 7. apartatuetan agertzen diren betebeharrak ez betetzeagatik, botoa emateko eskubidea, eta Alderdiaren barneko hautapeneko edozein kargutarako edo edozein kargu publikotarako hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea bakarrik etengo dira, Diziplinazko Erregelamenduan ezarritako denborarako eta haren arabera. Hala eta guztiz ere, uri buru batzarrak kasu bakoitzaren inguruabarrak aztertuko ditu, aipaturiko betebeharron ez-betetzea banan-banan zuzitzeko.

16. artikulua.— EAJ-PNVren buru batzarrek euren giza baliabideen plangintza egingo dute, eta alderdikideak hartzeko, prestatzeko eta sustatzeko politika garatuko dute.

17. artikulua.— EAJ-PNVren buru batzarrek estrategia bat sortuko dute Alderdiaren alderdizaleekin komunikatzeko bideak eta haiekin harremanak izateko mekanismoak indartze aldera.

Horretarako, uri erakundeek EAJ-PNVren lokalen erabilera bultzatuko dute, batez ere batzokiena; helburu horrekin, alderdikide ez direnek parte har dezaketen jarduerak antolatuko dira, eta alderdikide ez direnek parte hartuko duten talde edo elkarteen sorrera sustatuko dute.

II. TITULUA

BERDINTASUNERAKO ETA INDARKERIA MATXISTAREN ETA GORROTO-ARRAZOIEN INDARKERIAREN AURKAKO PLANA

18. artikulua.— EAJ-PNVk une oro eguneratuta izango du Alderdiaren barneko berdintasun-plan bat, indarkeria matxista prebenitzeko eta antzemateko neurriak jasoko dituen.

Plan hori EBBk onetsi eta Aberri Batzarrak berronetsiko du. Plan hori aberri-estatutu hauei eranskin gisa txertatuko zaie.

Era berean, eguneratuta izango du protokolo bat, laneko jazarpenaren aurka, sexu-jazarpenaren aurka edota sexu-orientazioagatiko jazarpenaren aurka.

19. artikulua.— EAJ-PNVk une oro eguneratuta izango du jarduteko protokolo bat, alderdikide direnek zein alderdikide izan gabe ordezkaritza kargua dutenek edo eginkizun jakin baterako izendatuak direnek ere, hierarkia maila edo kargu publikoa edozein izanda ere, Alderdiaren barruan zein Alderditik kanpo egin dezaketen indarkeria matxistaren edo gorroto-arrazoien indarkeriaren aurka.

Protokolo hori EBBk onetsi eta Aberri Batzarrak berronetsiko du. Protokolo hori aberri-estatutu hauei eranskin gisa txertatuko zaie.

III. TITULUA

ALDERDIZALEAK

20. artikulua.— EAJ-PNVren alderdizaletzat jotzen da Alderdiaren printzipio eta idealak partekatzen dituen pertsona oro, edozein lekutan bizi dela ere. Alderdizaleetan sartu ahal izango dira alderdikidetu gabe EAJ-PNVrekin lotuta egon nahi duten alderdizaleak, betiere harreman egonkorra izateko eta haren jardueretan eta ekimenetan laguntzeko.

Alderdizaleetan sartzeko, eskatzaileak egin beharreko eskabidea bete eta sinatu beharko du, eskabidean zehazten diren konpromisoak bereganatu eta betekizunak bete beharko ditu, eta erakundean sartzeko eskabidearen aldeko ebazpena jaso beharko du, eskabidea erregistratzen denetik hilabeteko epean.

Alderdizaleetako kide izatea ez da, inola ere, EAJ-PNVko alderdikide izatea, baina bai inplikatzeko du harreman-lotura bat elkartutako pertsonaren eta Alderdiaren artean, komunikazioa eta informazioa partekatzeko.

Euzkadi Buru Batzarrari dagokio Alderdizaleei dagokien guztia arautzea; arautze hori Aberri Batzarrak onetsi beharko du.

IV. TITULUA

EAJ-PNVren ANTOLAKETA

I. kapitulua

PRINTZIPIO OROKORRAK

21. artikulua.— EAJ-PNV alderdi bakarra da, eta ezaugarri hauek ditu:

1. Batzar-eraketa duen alderdia da, eta bere alderdikideen benetako partaidetza errazten du alderdi politiko gisa dagozkion erabakiak hartzean eta eginkizunen egikaritzan.
2. Uri- eta herrialde-mailetako erakundeei dagozkien erabakiak hartzeko eskumen-eremua zaintzea bermatzen du une guztietan.
3. Botere eta eginkizunen banaketatik hasita egituratzen ditu Alderdiaren barneko organoak.
4. Bere buru batzarrak kide anitzeko organo gisa eratzen ditu.
5. Bere egiten ditu printzipio hauek: Alderdiaren barneko karguak eta Alderditik kanpoko karguak banantzekoa; boterea ez metatzekoa, eta kontrolatzailea eta kontrolatua ez nahastekoa.
6. Onartzen du Alderdiaren barneko kargu bat edo kargu publiko bat hautatzeko organo eskudunek, era berean, ahalmena dutela hautapen hori edozein unetan ezeztatzeko.
7. Gardentasuna, ebaluazioa eta kontu-ematea bermatzen ditu barne-funtzionamenduan.

22. artikulua.— Alderdiaren kide anitzeko organoak organo bakoitzeko presidentearen deialdiaren bidez batzartuko dira eta deialdia gutxienez bilera arruntaren edo bereziaren egunerako ezarritako eguna baino 3 egun natural lehenago egin beharko da, betiere kasuak behar duen presarekin, baldin eta beren ekimenez erabakitzen badute edo organoetako kide guztien laurden batek eskatzen badu arrazoiak eta bileraren xedea adierazita.

Hori guztia gorabehera, organo bakoitzak bere erregelamenduan epe zehatz bat ezarri ahal du, eta epe hori aplikatuko da.

Deialdiak komunikazio idatzi baten bidez egingo dira, eta hauek adieraziko dira: bilerarako lekua edo kanala, eguna eta ordua, eta gai-zerrenda, zeinak izango dituen aztertuko diren gaiak, eta esango da zein organok egiten duen deialdia.

Gutxienez kideen erdiek egon beharko dute bileran, presako kasuetan izan ezik. Kasu horietan presidenteak azalduko du zein arrazoi izan dituen bilera quorum txikiagoarekin egiteko, eta proposamena bozketara eramango du.

Gai-zerrendak presidenteak erabakitzen dituen gaiak jasoko ditu eta, horiekin batera, deialdia bidali baino lehenago, gutxienez kideen laurden batek planteatu d(it)uen puntua(k) ere bai.

Kide anitzeko organoan sortzen diren eztabaidak presidenteak gidatuko ditu. Gai-zerrendako gai bakoitza aurkeztu ondoren, hitz egiteko txanda bat zabalduko da eta presidenteak hitza emango die hala eskatu duten kideei, eta, beharrezko jotzen badu, ihardespen-txanda eman ahal izango du.

Kide anitzeko organoen erabakiak bertaratuen gehiengo soilez hartuko dira, salbu eta estatutuek gehiengo kualifikatua eskatzen dutela.

II. kapitulua

URIETAKO, HERRIALDEETAKO ETA ABERRIKO ERAKUNDEAK

Lehenengo atala:

Urietako erakundeak

23. artikulua.— 1. Uri erakunde bat eratzeko edo desegiteko eskumena herrialdeko buru batzarrari dagokio. Uri erakunde bat eratzeko beharrezkoa izango da berari dagokion herrialdeko estatutuak zehaztutako alderdikideen kopurua egotea udal-mugartean edo mugapean.

2. Udalerrietako eraketa geografikoa edo alderdikideen kopurua direla eta, uri erakunde bat behar beste erakundetan zatitu ahal izango da kasu hauetan:

a) Eratu behar den uri erakundearen mugartean edo mugapean helbideratuta dauden alderdikideen % 50ek baino gehiagok eskatuz gero, eta herrialdeko buru batzar eskudunak baimena emanda, lehengo uri erakundeari entzun eta gero.

b) Herrialdeko buru batzarrak proposatu eta eratu behar den uri erakundearen mugartean edo mugapean helbideratuta dauden alderdikideen % 50en baino gehiagoren adostasunarekin, lehengo uri erakundeari entzun eta gero.

Uri erakunde bat zatitzen denetan, batzorde bat sortuko da; batzorde hori osatuko dute ekimenaren proposatzaileen ordezkariak, bereizketaren jatorriko erakundearen ordezkariak eta herrialdeko buru batzarren ordezkariak; eta haren helburua izango da, besteak beste, lurralde-mugapea eta ondarea zehaztea, uri erakunde berria eratu baino lehen.

3. Uri erakunde bik edo gehiagok bat egin ahal izan dezaten, hauek izango dira beharrezkoak:

a) Erakunde bakoitzaren uri batzarreko kideen gehiengo osoak onestea bat egiteko erabakia.

b) Batzar bakoitzaren erabakiak eragindako uri erakunde bakoitzaren alderdikide guztien % 30 ordezkatzeari, gutxienez.

c) Herrialdeko buru batzar eskudunaren baimena jasotzea.

24. artikulua.— Uri erakunde bakoitzak EAJ-PNVren barne-araudiaren arabera egingo du barne-antolaketa, betiere estatutu hauetan eta uri erakunde horri dagokion herrialde-erakundekoetan xedatutakoa kontuan harturik.

Udal-eremuko buru batzarren artekoa

25. artikulua.— 1. Uri erakunde bat baino gehiago dagoen udalerrietan, erabaki beharko da buru batzarren arteko bat eratzeko. Eratze-erabaki hori herrialdeko buru batzarrak hartuko du.

2. Buru batzarren artekoa organo funtzionala da, eta ardura dauka EAJ-PNVren ekintza politikoa batu, bultzatu eta kontrolatzeko, betiere buru batzarren artekoaren sorrera eragin zuten eginkizun eta xedeetarako, eta beronen jarduketa-eremuan.

3. Herrialdeko buru batzarrak buru batzarren artekoa eratzeko hartuko duen erabakian hasierako barne-erregelamendua finkatuko da, zeinean jasoko baitira aspektu hauek gutxienez: buru batzarren artekoaren osaera, jarduketa-eremua, xedeak, eginkizun espezifikoak, antolaketa, araubide ekonomikoa eta barne-funtzionamendua, bai eta erabakiak hartzeko modua ere. Herrialdeko buru batzarrak entzun egingo die ukitutako uri erakundeei erabakia hartu aurretik.

4. Buru batzarren artekoari dagokio, uri batzarrek ezarritako jarraibideen arabera:

a) Udalerrri bakoitzean EAJ-PNVren jarduketa politikoa koordinatzea.

b) Jarraibide politikoak finkatzea, bere eremuan diharduten udal-kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak eta izendapeneko karguak betetzen dituztenak orientatzea, laguntzea eta kontrolatzea, baldin eta buru batzarren artekoak kargu horien izendapenean zuzenean edo zeharka parte hartu badu.

c) Uri batzarrei herri-hautapeneko udal-kargu publikoetarako hautagaiak proposatzea: alkatea eta zinegotziak. Hiriburuetan, proposamen hori buru batzarren artekoaren eta herrialdeko buru batzarraren arteko adostasunez egingo da.

d) Udal-kargu publikoak betetzen dituzten pertsonen urteko txostena jasotzea eta aztertzea. Txosten horren berri eman beharko zaie uri batzarrei, eurok bera onets dezaten edo, bestela, ezets dezaten. Horretarako, gutxienez uri batzarren erdiaren eta baten adostasuna beharko da, baldin eta gehiengo horrek, era berean, buru batzarren artekoaren gehiengo osoa ordezkatzeko badu.

e) Udal-hauteskundeetan hauteskunde-kanpainak antolatzea eta berauen jarraipen eta kontrola egitea, salbu eta hiriburuetan, zeinetan eginkizun horiek herrialdeko buru batzarrarekin koordinatuta egin beharko baitira.

5. Buru batzarren artekoa hauek osatuko dute gutxienez: bera osatzen duten uri erakundeetako bakoitzeko uri buru batzarreko presidenteak edo beronen eskuordeak eta, gutxienez, herrialdeko buru batzarreko kide batek. Aurrekoari kalterik egin gabe, uri erakunde bakoitzak buru batzarren artekoan duen ordezkaritza uri erakunde bakoitzak herrialdeko batzarrean dituen ahaldunak bestekoa izango da. Kopuru hori herrialdeko buru batzarrak herrialdeko batzar arrunta egin baino hamabost egun lehenago finkatzen duena izango da, eta urte osoan iraungo du. Uri erakunde batek ere ezin izango du botoen gehiengo osoa izan buru batzarren artekoan.

6. Buru batzarren artekoa osatzen duten pertsonen agintaldia beraren funtzionamenduko barne-erregelamenduan ezarritakoa izango da.

7. Buru batzarren artekoa osatzen duten pertsona guztiak berdinak dira betebeharretan eta eskubideetan, hargatik eragotzi gabe buru batzarren artekoaren erregelamenduak ezartzen dituen mugak. Buru batzarren artekoa osatzen duten pertsona guztiek eskubide eta betebeharrak hauek dituzte:

a) Buru batzarren artekoaren barruan egingo diren eztabaidetan parte hartzea, adierazpenak egiteko eta botoa emateko askatasun osoz, salbu eta uri batzarraren aginduzko manamendua dagoela.

b) Parte hartzea buru batzarren artekoaren barruko erantzukizunen banaketan.

c) Informazioa jasotzea buru batzarra osatzen duten pertsona guztietako bakoitzaren eta udal-kargu hautetsien jarduketei buruz.

8. Uri buru batzarreko presidenteak edo berak eskuordetzen duenak egingo du buru batzarraren artekoaren zuri-bidea bere uri batzarrean. Herrialdeko buru batzarrak izendatutako pertsonak erantzungo dute beraren aurrean.

9. Uri buru batzarretako presidentearen edo beraien eskuordeen eta herrialdeko buru batzarraren kideen arteko desadostasuna badago, orduan, horietako edonork gaia herrialdeko batzarrera eraman ahal izango du, eta auzia bertan erabakiko da.

Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa

25 bis artikulua.— 1. Uri erakunde bat baino gehiago dauden eskualde edo bailara eta kuadrilla guztietan, bailarako edo eskualdeko eta koadrilako udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa eratzea erabaki ahal izango da.

2. Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa organo funtzionala da, eta ardura dauka EAJ-PNVren ekintza politikoa batu, bultzatu eta kontrolatzeko, betiere buru batzarren artekoaren sorrera eragin zuten eginkizun eta xedeetarako, eta beronen jarduketa-eremuan.

3. Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren arteko bat eratzeko, herrialdeko buru batzarraren erabakia beharko da, bailarako edo eskualdeko eta kuadrillako uri erakunde gehiengoak hala eskatzen badu.

4. Herrialdeko buru batzarrak udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa eratzeke hartuko duen erabakian hasierako barne-erregelamendua finkatuko da, zeinean jasoko baitira aspektu hauek gutxienez: buru batzarren artekoaren osaera, izaera, jarduketa-eremua, xedeak, araubide ekonomikoa, eginkizun espezifikoak, antolaketa eta barne-funtzionamendua, bai eta erabakiak hartzeko modua ere. Herrialdeko buru batzarrak erabaki aurretik, ukitutako uri erakundeek erabakia hartu behar dute.

5. Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoari dagokio, bera eraten duten uri erakundeetako uri batzarrek ezarritako jarraibideen arabera:

a) Udalerria baino lurralde-eremu handiago bakoitzean EAJ-PNVren jarduketa politikoa koordinatzea.

b) Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko instantzia ofizialetan (kuadrilla, mankomunitatea...) diharduten EAJ-PNVko karguak betetzen dituzten pertsonak orientatzea, laguntzea eta kontrolatzea.

c) Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoak eta herrialdeko buru batzarrak elkarrekin proposatuta, hautagaiak proposatzea udalerria baino lurralde-eremu handiagoko instantzia ofizialei atxikitako izendapeneko kargu publikoak betetzeko (kuadrilla, mankomunitatea...).

d) Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko instantzia ofizialei (kuadrilla, mankomunitatea...) atxikitako izendapeneko kargu publikoak betetzen dituzten pertsonen urteko txostena jaso eta aztertzea, beroriek onets dezaten edo, bestela, ezets dezaten. Horretarako, udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoan uri erakundeak ordezkatzeko dituzten pertsonen gehiengo osoa beharko da (erdia gehi bat).

6. Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa hauek osatuko dute gutxienez: bera osatzen duten uri erakundeetako bakoitzeko uri buru batzarreko presidentek edo beronen eskuordeak eta, gutxienez, herrialdeko buru batzarreko kide batek.

7. Aurreko puntuan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, uri erakunde bakoitzak udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoan duen ordezkaritza uri erakunde bakoitzak herrialdeko batzarrean dituen ahalduak bestekoa izango da.

8. Uri erakunde batek ere ezin izango du botoen gehiengo osoa izan udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoan.

9. Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa osatzen duten pertsonen agintaldia beraren funtzionamenduko barne-erregelamenduan ezarritakoa izango da.

10. Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa osatzen duten pertsona guztiak berdinak dira betebeharretan eta eskubideetan, hargatik eragotzi gabe pertsona horietako bakoitzak eratzikita dituen erantzukizunak.

11. Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoa osatzen duten pertsona guztiek eskubide eta betebeharrak dituzte:

a) Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoaren barruan egingo diren eztabaidetan parte hartzea, adierazpenak egiteko eta botoa emateko askatasun osoz, salbu eta uri batzarraren aginduzko manamendua dagoela.

b) Parte hartzea udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoaren barruko erantzukizunen banaketan.

c) Informazioa jasotzea udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren arteko kideen eta udalerria baino lurralde-eremu handiagoko instantzia ofizialei (kuadrilla, mankomunitatea...) atxikitako izendapeneko kargu publikoak betetzen dituzten pertsonen jarduketei buruz.

12. Uri buru batzarreko presidenteak edo berak eskuordetzen duenak egingo du buru batzarraren artekoaren zuribidea bere uri batzarrean. Herrialdeko buru batzarrak izendatutako pertsonak erantzungo dute beraren aurrean.

13. Uri buru batzarretako presidentearen edo haien eskuordeen eta herrialdeko buru batzarraren kideen arteko desadostasuna badago, orduan, horietako edonork gaia herrialdeko batzarrera eraman ahal izango du, eta auzia bertan erabakiko da.

Bigarren atala:

Herrialdeetako erakundeak

26. artikulua.— EAJ-PNVren Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Iparraldeko eta Nafarroako herrialdeetako erakundeak euren dagozkien herrialdeetako uri erakundeek osatuko dituzte.

27. artikulua.— Herrialdeko erakunde bakoitzak herrialde-estatutuen arabera atonduko du bere barne-antolaketa, betiere estatutu hauek xedatzen dutena zainduz.

Hirugarren atala:

Aberri-erakundea

28. artikulua.— EAJ-PNVren aberri-erakundeak bere alderdikide guztiak hartzen ditu, baita urietako erakundeak eta herrialdeetako erakundeak ere. Euzkadiz kanpoko erakundeek ere aberri-erakundea osatzen dute.

III. kapitulua

EUZKADIZ KANPOKO ERAKUNDEAK

29. artikulua.— Euzkadiko lurraldetik kanpo sortzen diren erakundeak, baita horietan sartzen diren alderdikideak ere, Euzkadi Buru Batzarraren orientazio orokorreari loturik egongo dira; izan ere, horrek eskuordetza bereziak zein iraunkorrak bidali ahal izango ditu, eta beharrezko deritzen beste jarduketara egitea erabaki dezake EAJ-PNVren ekintza politikoa garatzeko Euzkaditik kanpo.

30. artikulua.— Euzkadiz kanpoko erakundeek lurralde nazionalen dauden uri erakundeek bezala funtzionatu dute, eskubide eta eginbehar berberekin, hargatik eragotzi gabe Aberri Estatutuetan xedatutakoa, eta bakoitzak bere estatutuen arabera antolatuko du bere burua barne-mailan. Haien eremuak edo jurisdikzioak eurak kokatuta dauden herrialdearen mugak hartuko ditu, 33. artikuluan xedatutakoaren kontra jo gabe.

31. artikulua.— EAJ-PNVren aberri-organo zuzendarien jurisdikzioa alderdikide guztiengana hedatzen da, haien lurralde-egoera edozein dela ere, baita euren ohiko bizilekua euskal lurraldetik kanpo dutenengana ere.

32. artikulua.— 1. Euzkadiz kanpoko erakunde bakoitza Aberri Batzarrean egongo da bere ordezkarien bitartez, botoa emateko eskubidea duela, Aberri Batzarrak berak bilkura arruntean eta urte osorako hala erabakitzen duenean, eta betekizun hauek egiaztatu ondoren:

- a) gutxieneko ekintza politiko iraunkorra garatzea;
- b) bere barne-organoak eratuak edukitzea: batzarra, buru batzarra eta epaimahaia;
- c) gutxienez 25 alderdikide izatea;
- d) bere kuoten kobrantza normaltasunez kudeatzea.

2. Euzkadiz kanpoko erakundearen ordezkari bati, bertako alderdikidea izanik, Aberri Batzarrera azaltzea ezinezkoa zaionean, azken horrek lurralde nazionalako uri erakunde bateko edo Euzkadiz kanpoko erakunde bateko alderdikide bati eskuordetu diezaioke bere ordezkaritza.

3. Era berean, Aberri Batzarrak erabaki ahal izango du aurreko betekizunak betetzen ez dituzten Euzkadiz kanpoko erakundeak ere bilkuretara azaltzea, hitz egiteko eskubidea bakarrik dutelarik.

33. artikulua.— Alderdikideen kopuruagatik hala behar duten herrialdeetan, Aberri Batzarrak egoki deritzen beste Euzkadiz kanpoko erakunde eratu ahal izango du, betiere interesdunek hala eskatuz gero, eta haien batzarraren erabakia kontuan hartu ondoren.

34. artikulua.— Euzkadiz kanpoko erakundeek eta haien alderdikideek haien jarduketa-eremuan dauden euskal elkarte, etxe eta klubetan aktiboki parte hartuko dute, eta EAJ-PNVren ekintza politikoan lagunduko dute.

IV. kapitulua

EUZKO GAZTEDI

35. artikulua.— 1. Euzko Gaztedi (EGI) EAJ-PNVren gazte-erakundea da.

2. EGIk parte hartuko du EAJ-PNVk gazteriarentzat egiten duen politikaren diseinugintzan, eta buru batzar eskudunek horretarako beharrezko jotzen dituzten bideak egokituko dituzte.

3. EGIk antolaketarako autonomia izango du, bere estatutu eta erregelamenduen arabera, betiere EAJ-PNVren antolaketa-irizpideak betez.

4. EGiren txosten, ebazpen eta jarduketek bat etorri behar dute EAJ-PNVren ideologiarekin eta politika orokorrarekin.

V. kapitulua

HELDUAK

36. artikulua.— 1. “Helduak” EAJ-PNVko adineko alderdikideen erakundea da.

2. Helduek parte hartuko dute EAJ-PNVk adinekoentzat egiten duen politikaren diseinugintzan, eta buru batzar eskudunek horretarako beharrezko jotzen dituzten bideak egokituko dituzte.

3. Helduek autonomia izango dute beren burua antolatzeko, beren estatutu eta erregelamenduen arabera, betiere EAJ-PNVren antolaketa-irizpideak betez.

4. Helduen txosten, ebazpen eta jarduketek bat etorri behar dute EAJ-PNVren ideologiarekin eta politika orokorrarekin.

V. TITULUA

BATZARRAK

I. kapitulua

URIETAKO BATZARRAK

37. artikulua.— Uri batzarra uri erakundearen organo gorena da.

Uri batzarra uri erakundeko alderdikideek osatzen dute, haiek bildurik daudela estatutuetan eta erregelamenduetan ezarritako betekizunen arabera.

38. artikulua.— Hauek dagozkio uri batzarrari:

1. Bere udal-mugartean EAJ-PNVren politika zuzentzea, betiere goragoko organoek onetsitako ekintza-planaren bidez hartutako erabaki eta jarraibideak errespetatuz.

2. Barne-erregelamendu baten bidez, berari dagokion uri batzarraren funtzionamendua finkatu ahal izatea.

3. Uri buru batzarra aukeratzea.

4. Berari dagokion herrialdeko batzarreko ahaldunak urtero aukeratzea eta Batzar Nagusirako ordezkariak aukeratzea, hartutako erabakiak ordezkariok betetzen dituztela kontrolatu eta beroriei, behar izanez gero, erantzukizuna eskatzea.

5. Herrialdeko batzarrean eta Batzar Nagusian, uri erakundearen izenean aurkez daitezkeen proposamenak onestea.

6. Alkategaiak eta zinegotzigaiak aukeratzea, 90. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitakoaren arabera.

7. Uri buru batzarraren jarduketa politikoa orientatu, eta haren bidez buru batzarren artekoaren kideak, buru batzarren arteko hori badago, haren kudeaketa eta hartutako erabakiak bete daitezen kontrolatu, eta, behar izanez gero, haien karguaren egikaritzagatik erantzukizuna eskatzea.

8. Udal-eremuko kargu publikoen jarduketa politikoa orientatu, eta, behar izanez gero, erantzukizun politikoa eskatzea.

9. Alderdiaren barneko uri-karguek eta udalerriko kargu publikoetan diharduten alderdikideek aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.

10. Hautagaiak proposatzea Alderdiaren barneko herrialdeetako eta aberriko karguetarako, eta herrialdeetako, aberriko eta Euzkadiz kanpoko eremuetako kargu publikoetarako, estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera.

11. Uri buru batzarrak proposatuta, uri batzar arruntean onestea itxitako ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak eta hurrengo ekitaldi ekonomikorako aurrekontua, ekitaldiko lehenengo bi hilabeteen barruan, ahal dela lehenengo hilabeteen, eta betiere herrialdeko batzar arrunt eskuduna egin baino lehen.

12. Uri erakundearen ekonomiaren eta ondarearen kudeaketa herrialdeko buru batzarrari lagatzea erabaki ahal izango du uri batzarrak.

13. Urtero uri batzar arruntean kontu-aztertzaileak aukeratzea, 3 gehienez; ahal dela, kontu-aztertzaileok uri erakundeko alderdikideen artetik aukeratuko dira.

Uri batzarrak erabakia hartu ahal izango du kontu-aztertzaileak izendatzeko ahalmena herrialdeko buru batzarrari lagatzeko, eta lagapen hori indarrean dagoela ulertuko da batzarrak berak hura ezeztatzen ez duen bitartean.

Lehenengo bihilekoaren barruan uri batzarrak ez badu aztertzailearik hautatu, edo ahalmen hori herrialdeko buru batzarrari laga ez badio, edo uri erakundeak erabakia hartu badu bere ekonomiaren eta ondarearen kudeaketa herrialdeko buru batzarrari lagatzeko, orduan, herrialdeko buru batzarrak berak izendatu beharko ditu uri erakundeko kontu-aztertzaileak.

39. artikulua.— Uri batzarraren erregelamenduak, edo, hori izan ezean, EAJ-PNVren barne-araudiak, uri batzarraren antolaketa eta barne-funtzionamenduaren aspektu guztiak arautuko ditu, betiere, goragoko estatutuetan eta erregelamenduetan xedatutakoa errespetatuz.

39 bis artikulua.— Uri erakundeek gutxienez hiru hilabeterik behin deitu eta egin beharko dituzte beren uri batzarrak.

II. kapitulua

HERRIALDEETAKO BATZARRAK

40. artikulua.— 1. Herrialdeko batzarra herrialdeko erakundearen organo gorena da, eta hauek dira batzarreko kideak:

a) Uri batzarretan aukeratutako ahaldunak, zeinak aukeratuak baitira ordezkaritza proportzional arindu eta mugatuko sistema baten arabera.

b) Herrialdeko buru batzarra eta herrialdeko epaimahaia.

c) Herrialdeko erakundeko alderdikideak diren Euzkadi Buru Batzarreko eta Justiziako Aberri Epaimahaiko kideak.

d) Aberri Berme eta Zaingo Batzordea.

e) Aberri Batzarrean herrialdeko erakundeak dituen ordezkariak.

f) Herrialdeko instituzioetan herri-hautapeneko kargu publikoak dituzten alderdikideak eta, aurretiaz deituak izan baldin badira, instituzioetan izendapenekoak diren karguak.

g) Udalerrietako kargu publikoen ordezkaritza bat, edo beste alderdikide batzuk, herrialdeko batzarraren erregelamenduak xedatutakoaren arabera.

h) Euzko Gaztediren herrialdeko buru batzarraren eta Helduen ordezkariak.

i) Herrialde-idazkaritzako arduradun teknikoak, horiek badaude.

2. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute a) apartatuko kideek. Herrialdeko batzarreko gainerako kideek hitz egiteko eskubidea izango dute soilik.

30 alderdikide baino gutxiagoko uri erakundeetan, salbuespen gisa eta modu arrazoituan, alderdikideok herrialdeko batzarrera joaterik ez dutenean, beren herrialdeko batzarraren mahaian gordailutu ahal izango dute beren uri batzarraren aginduzko manamenduko botoa, eta boto hori baliozkotzat joko da ondore guztietarako, eta inguruabar hori beren-beregi jasoko da herrialdeko batzarraren aktan. Uri erakundeak botoa gordailutzeko erabakiaren ziurtagiria bidaliko dio Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari.

41. artikulua.— Hauek dagozkio herrialdeko batzarrari:

1. Bere herrialdean EAJ-PNVren politika zuzentzea eta jarduketa-plana onestea.
2. Herrialdeko buru batzarraren jarduketa politikoa orientatu, haren kudeaketa eta hartutako erabakiak bete daitezen kontrolatu, eta, behar izanez gero, haren karguaren egikaritzagatik erantzukizuna eskatzea.
3. Herrialde-estatutuak onetsiz, herrialdeko erakundearen antolaketa eta funtzionamendu-araubidea finkatzea.
4. Herrialdeko buru batzarreko kideak eta haren burua aukeratzea, justiziako herrialdeko epaimahaiko kideak aukeratzea eta Aberri Batzarreko ordezkariak aukeratzea.
5. Bere herrialdeko ganbera legegilerako hautagaiak aukeratzea, bai eta organo betearazle eskuduneko hautagaiak ere, betiere herrialdeko buru batzarrak proposamena egin eta gero.
6. Herrialdeko erakundearen proposamena egitea batzar bakoitzak hautagai hauek aukera ditzan: Euzkadi Buru Batzarreko kideak eta presidentea, Justiziako Aberri Epaimahaiko kideak, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeko kideak, eta aberriko eta Euzkadiz kanpoko kargu publikoak.
7. Hartutako erabakiak bete daitezen kontrolatu eta, behar izanez gero, Aberri Batzarrean berak dituen ordezkariari erantzukizuna eskatzea.
8. Herrialde-eremuko kargu publikoen jarduketa politikoa orientatu, eta, behar izanez gero, erantzukizun politikoa eskatzea.
9. EAJ-PNVren herrialdeko organoek eta herrialdeko kargu publikoetan diharduten alderdikideek aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.
10. Herrialdeko buru batzarrak proposatuta, udalerriaren maila gainditzen duten plan, proiektu edota ekimenak herrialdearentzat interes estrategikokoak direlako adierazpena onestea.
11. Aberri Batzarrean eta Batzar Nagusian herrialdeko erakundearen izenean aurkez daitezkeen proposamenak onestea.
12. Uri erakunde baten edo gehiagoren eta herrialdeko buru batzarraren artean sor daitezkeen iritzi-ezberdintasunak ebaztea.

13. Buru batzarren artekoan sor daitezkeen gatazkak ebaztea, betiere estatutu hauen 90. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

14. Herrialdeko buru batzarrak proposatuta, batzar arruntean onestea itxitako ekitaldi ekonomikoko herrialde-mailako urteko kontu konsolidatuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua, betiere ekitaldiko lehenengo bi hilabeteen barruan, eta horiek Euzkadi Buru Batzarrari bidaltzea.

15. Bi urtean behin bi kontu-aztertzaile eta bi ordezkari aukeratzea, zeinek informatuko baitute herrialdeko buru batzar eskudunak aurkeztutako kontuen egokitasunaz eta barne-kontroleko sistemaz. Txosten hori, urteko kontuekin batera, herrialdeko buru batzarrak proposatuta, onesteko aurkeztuko da.

Era berean, uri batzar arruntean kontu-aztertzaileak aukeratu ez duten uri erakundeetako kontu-aztertzaileak aukeratzea.

42. artikulua.— Herrialdeko batzarraren erregelamenduak haren antolaketa eta barne-funtzionamenduaren aspektu guztiak arautuko ditu, betiere, goragoko estatutuetan eta erregelamenduetan xedatutakoa errespetatuz.

Edozelan ere, herrialdeko batzar arrunta Aberri Batzar arrunta egin baino lehen egin beharko da.

III. kapitulua

ABERRI BATZARRA

43. artikulua.— 1. Aberri Batzarra aberri-erakundearen organo gorena da, eta hauek dira batzarreko kideak:

a) Herrialdeetako erakundeetako eta Euzkadiz kanpoko erakundeetako ordezkariak, irizpide hauen arabera:

— 15 ordezkari Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako herrialde-erakundeetatik bakoitzeko, zenbat alderdikide dituen kontuan hartu gabe;

— 5 ordezkari Iparraldeko herrialde-erakundetik;

— 30 ordezkari, herrialdeetako erakundeen artean banaturik, alderdikideen kopuruaren heinean. Sistema hau lau urtetik behin berrikusiko da;

— Euzkadiz kanpoko erakundeek, behar den moduan eratuak izan eta, estatutuok zehaztutako baldintzen arabera, EAJ-PNVren erakunde gisa gutxieneko jarduera burutzen badute, boto bat izango dute erakunde bakoitzeko, baina ezin izango dute guztiek batera 5 bototik gora izan Aberri Batzarrean.

b) Euzkadi Buru Batzarra.

c) Herrialdeetako buru batzarrak.

d) Justiziako Aberri Epaimahaia, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordea.

e) Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta sailburuak, eta aberriko eta Euzkadiz kanpoko erakundeetan herri-hautapenekoak diren kargu publiko EAJ-PNVren alderdikideak.

f) Udal- eta herrialde-eremuetako kargu publikoetan diharduten alderdikideen ordezkari bat, Aberri Batzarraren Erregelamenduak xedatutakoaren arabera.

g) Euzko Gaztediren Aberri Kontseilua eta Helduak.

h) Euzkadi Buru Batzarrak edo Aberri Batzarrak deitutako alderdikideak, bai norbera legez, bai alderdikide batzuen kolektibo baten ordezkari legez.

2. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute 1.a) apartatuko kideek. Aberri Batzarreko gainerako kideek hitz egiteko eskubidea izango dute soilik.

3. Herrialde-erakunde bakoitzak ordezeko legez izango du, gehienez, 1.a) apartatuko ordezkarien herena. Euzkadiz kanpoko erakundeetatik bakoitzak ordezeko bat izendatu ahal izango du.

44. artikulua.— Aberri Batzarraren Mahaia urtebeteko aldirako aukeratuko da, beraren izendapena ezeztatu daitekeelarik, eta batzarraren erregelamenduak eratzikitzen dizkion politikaz besteko eginkizunak egikaritzeko ditu.

45. artikulua.— 1. Aberri Batzarrak eskumen hauek ditu:

a) EAJ-PNVren zuzendaritza politiko orokorra.

- b) Herrialde biri edo gehiagori dagokien guztia.
- c) Aberri Estatutuen erreforma onestea; hala eginez gero, Batzar Nagusiak berronetsi beharko du erreforma hori.
- d) Batzar Nagusiaren Erregelamenduaren, Aberri Berme eta Zaingo Batzordearen Erregelamenduaren, Diziplinazko Erregelamenduaren, eta Hauteskundeei buruzko Erregelamenduaren erreforma onestea.
- e) Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, itxitako ekitaldi ekonomikoko aberri-mailako urteko kontu kontsolidatuak eta aberri-erakundearen aurrekontua onestea, ekitaldiko lehenengo hiru hilabeteen barruan.
- f) Justiziako Aberri Epaimahaia, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordea aukeratzea.
- g) Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, aberriko edota Euzkadiz kanpoko kargu publikoetarako hautagaiak aukeratzea: Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, espainiar estatuko Gorte Nagusietarako eta frantziar estatuko Parlamenturako hautagaiak, eta Europako Parlamenturako hautagaiak.
- h) Euzkadi Buru Batzarraren jarduketa politikoa orientatu, haren kudeaketa eta hartutako erabakiak bete daitezen kontrolatu, eta, behar izanez gero, haren karguaren egikaritzagatik erantzukizunak eskatzea.
- i) Aberriko edota Euzkadiz kanpoko kargu publikoak egikaritzen dituzten alderdikide guztien ekintza politikoa orientatu, eta, behar izanez gero, erantzukizun politikoa eskatzea.
- j) Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, herrialdearen maila gainditzen duten plan, proiektu edota ekimenak aberriarentzat interes estrategikokoak direlako adierazpena onestea.
- k) Herrialdeetako erakundeen artean, edo horien eta Euzkadi Buru Batzarraren artean sor daitezkeen iritzi-ezberdintasunak ebaztea.
- l) Estatutu hauetan aurreikusi ez diren aberriko edota Euzkadiz kanpoko arazoak ebaztea.

m) Aberriko edota Euzkadiz kanpoko instituzioei eragiten dieten koalizioak, itunak, legegintzaldietarako akordioak eta gainerako akordio egonkorak onestea.

n) Euzkadi Buru Batzarrak eta herrialdeetako buru batzarretako eta herrialdeetako batzarretako edozeinek egiten dituzten proposamenak jakin eta, hala badagokio, onestea.

ñ) Lau urtean behin Kontu-Aztertzaileen Aberri Batzordea aukeratzea; herrialde bakoitzeko ordezkari bat aukeratuko da batzorde hori osatzeko; kide horiek, berriz, herrialdeetako erakundeetako bakoitzaren ordezkarien artetik aukeratuko dira.

Batzordea aldian-aldian batzartuko da gutxienez hiruhileko natural bakoitza amaitutakoan eta aurkeztu diren kontuen egokitasunaz eta erakundean barne-kontrolerako ezarritako sistemaz informatuko du.

Txosten hori nahitaezkoa izango da eta urteko kontuekin batera, Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, onesteko aurkeztuko da.

o) EBBk proposatuta edo boto-eskubidea duten kideen % 60k gutxienez eskatuta, alderdikideei zuzeneko kontsulta ez-lotesleen deialdia onestea arazo jakin batzuei buruz.

p) Kontsulta-mekanismo horiek garatzeko irizpideak eta prozedurak erregelamenduz ezartzea; bitarteko elektronikoen bidez ere egin daiteke kontsulta hori.

2. Era berean, Aberri Batzarreko ordezkariak hautatuko dituzte Euzkadi Buru Batzarreko presidentea eta Euzkadi Buru Batzarreko zortzi burukide Batzar Nagusiaren barruan, betiere erregelamenduz ezarritako prozedura betez.

Edonolako kausa dela eta, Batzar Nagusiaren esparruan aukeratutako Euzkadi Buru Batzarreko presidenteak edo 8 burukideetako edozeinek kargua uzten badu, presidente berria edo burukide berria Aberri Batzarrak aukeratuko du, eta burukide horrek bere karguan iraungo du hurrengo Batzar Nagusia egin arte.

46. artikulua.— 1. Aberri Batzarra bilkura arruntean urtean behin batzartuko da nahitaez, ekitaldiko lehenengo hiru hilabeteen barruan, helburu hauek dituela:

a) EAJ-PNVren aberri-organoek eta 45.1 artikulua g) apartatuan aipatzen diren kargu publikoetan diharduten alderdikideek

aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.

b) EAJ-PNVren estrategia politikoa ezartzea, urtebeteko hurrengo aldirako.

c) Aurrekontua eta aberri-mailako urteko kontu kontsolidatuak onestea, zeinak aurkeztu behar baitira Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak aurretiaz emandako nahitaezko txostenarekin.

d) Euzkadi Buru Batzarrak eta herrialdeetako buru batzarretako eta herrialdeetako batzarretako edozeinek egiten dituzten proposamenak jakin eta, hala badagokio, onestea.

2. Aberri Batzarrak lau urtetik behin hautatuko ditu Alderdiaren barneko aberri-eremuko karguak; Euzkadi Buru Batzarra eta Aberri Batzarra berri eta handik bi urtera aukeratu beharko dira Justiziako Aberri Epaimahaiko kideak, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeko kideak.

47. artikulua.— 1. Aberri Batzarra bilkura berezian batzartuko da, urteko edozein egunetan, deialdia egiten bada:

a) Aberri Batzarrak berak erabakita.

b) Euzkadi Buru Batzarraren ekimenez.

c) Herrialdeetako buru batzar bik proposatuta.

d) 15 ordezkari edo herrialde-erakunde bateko ordezkari guztiek eskatuta.

e) EAJ-PNVren uri erakundeen edo alderdikideen % 15ek sinatutako eskaera batez.

2. Aberri Batzarra egingo da, deialdi-eskaera Batzarraren Mahaiari aurkezten zaion egunaren ondorengo 30 egun naturalen barruan.

3. Aldi horren lehenengo hamabost egunen barruan egiten ez bada deialdia, eskatzaileek errekurtsioa jar diezaioke Justiziako Aberri Epaimahaiari, zeinak batzarrerako deialdia egingo baitu errekurtsioa aurkezten den egunetik zenbatu beharreko hogeitahi eguneko aldiaren barruan egiteko batzarra.

48. artikulua.— 1. Batzarrak, arruntak nahiz bereziak, Aberri Batzarraren Mahaiak deituko ditu, gutxienez 7 egun natural lehenago.

2. Hala eta guztiz ere, Aberri Batzarraren Mahaiak edo Euzkadi Buru Batzarrak uste badute presa eta larritasun bereziko egoera dagoela, Aberri Batzar berezirako deialdia egingo da, adierazitako epeei kasurik egin gabe. Presako egoera hori batzarrak berronetsi beharko du.

3. Aberri Batzar arrunta deitzen ez bada, bera martxoaren azkeneko igandean batzartuko da beste barik, aurreko Aberri Batzarra egin zen leku eta ordu beretan.

49. artikulua.— 1. Aberri Batzarrak bertan dauden kideen gehiengo soilaren bitartez hartuko ditu erabakiak.

2. Hala eta guztiz ere, botoa emateko eskubidea izan eta batzarrean dauden ordezkariak emandako botoen gehiengo osoa behar izango da hauek egiteko:

a) Alderdiaren barneko karguak, eta kargu publikoetarako hautagaiak aukeratzeko;

b) estatutu hauen 46.1.a) eta c) artikulua aipatzen dituen urteko txostenak onesteko;

c) EAJ-PNVren Aberri Estatutuak onetsi eta erreformatzeko;

d) Aberriko edota Euzkadiz kanpoko instituzioei eragiten dieten koalizioak, itunak, legegintzaldietarako akordioak eta gainerako akordio egonkorak onesteko.

50. artikulua.— 1. Aberri Batzarrari dagokio bere erregelamendua onestea, zeinak haren barne-antolaketa eta funtzionamendu-araubidea zehaztuko dituen.

2. Aberri Batzarrak hartutako erabakien aktak herrialdeetako buru batzarren eskura jarriko dira hiru egun balioduneko epean, horiek aktok, era berean, uri erakundeei berehala igor diezazkieten, baita ere Euzkadiz kanpoko erakundeei, EGIren Aberri Kontseiluari eta Helduei.

51. artikulua.— Herrialdeetako erakundeen mekanismo egokiak jarriko dituzte, herrialdeetako buru batzarrek eta Aberri Batzarreko ordezkariak alderdikideei Aberri Batzarrean aztertutakoaren berri eman diezaieten albait arinen, eta, betiere, beranduen jota hilabeteko epean. Euzkadiz kanpoko erakundeen antzeko mekanismoak ezarriko dituzte.

IV. kapitulua

BATZAR NAGUSIA

52. artikulua.— Batzar Nagusia deialdi arruntaz lau urtetik behin eratzen da; horren aurretik EAJ-PNVn eztabaida egingo da, helburu hauek dituela:

1. EAJ-PNVk aldi horretan izan duen jarduketa politikoaren balantzea egitea.
2. Haren proiektu politikoa birbaieztatzea edo eraberritzea, ebazpenak edota dokumentu ideologiko eta programatikoak behin eta betiko onetsiz.
3. EAJ-PNVren barne-antolaketa aztertu eta, hala behar izanez gero, estatutuak aldatzeko Aberri Batzarrak aurretiaz onetsitako erabakia gehiengo osoaren bidez berronestea.
4. EAJ-PNVren alderdikideek edota organoek, estatutuetako eta erregelamenduetako bideez, aurkeztutako ebazpen-proposamenak eztabaidatu eta, egokia bada, onestea.
5. Euzkadi Buru Batzarreko presidentea eta Euzkadi Buru Batzarreko zortzi burukide aukeratzea, 45.2 artikuluaaren arabera.

53. artikulua.— Batzar Nagusiaren kideak hauek dira:

1. Batzar Nagusirako beren-beregi hautaturiko uri erakundeen ordezkariak; horiek EAJ-PNV osorako sistema bakar batez aukeratuko dira, hau da, ordezkaritza proportzional arindu eta mugatuaz:

- 100 alderdikideraino.....ordezkari bat
- 101 alderdikidetik 250era.....2 ordezkari
- 251 alderdikidetik 400era.....3 ordezkari
- 401 alderdikidetik 650era.....4 ordezkari
- 651 alderdikidetik 900era.....5 ordezkari
- 901 alderdikidetik gora.....6 ordezkari

2. Euzkadiz kanpoko erakundeen ordezkariak, a) puntuan adierazitako baldintzen eta sistemaren arabera aukeratuta.

3. Aberri Batzarreko ordezkariak.

4. Aberri Batzarra osatzen duten gainerako kideak.

5. Herrialde- eta udal-mailetako kargu publikoak egikaritzen dituzten alderdikideen ordezkaritza bat, Batzar Nagusiaren Erregelamenduak xedatutakoaren arabera.

6. Euzko Gaztediren eta Helduen ordezkariak.

7. Euzkadi Buru Batzarrak gonbidatutakoak, bai norbera legez, bai kolektibo baten ordezkari legez.

Batzar Nagusian hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute a), b) eta c) apartatuetan aipatzen direnek bakarrik. Gainerako kideek hitz egiteko eskubidea izango dute soilik.

54. artikulua.— Aberri Batzarrak edo Euzkadi Buru Batzarrak egingo du deialdia Batzar Nagusirako. Aberri Batzarrak onetsiko du Batzar Nagusiaren Erregelamendua, eta, beste gai batzuen artean, ezarriko ditu haren kide horiek hautatzeko sistema, bai eta haren funtzionamendu-araubidea ere.

VI. TITULUA

ALDERDIKIDEEI IRITZIA ESKATZEA

55. artikulua.— Uri erakundeek nahitaez deitu eta egin beharko dituzte uri batzarrak, estatutuen arabera Batzar Nagusiaren gaitzerrendako proposamenak eztabaidatzeko eta, hala behar izanez gero, onesteko.

55 bis artikulua.— Alderdiaren barneko hauteskunde-prozesu guztietarako alderdikideei iritzia eskatzeko prozedura arruntak 30 egunez iraungo du gehienez, aberri-estatutu hauen 52.5 artikuluko egunak barne, salbu eta iritzia presako prozeduraren bidez eskatzen dela; presako prozedura horrek prozedura arruntaren epeak ahalik

eta gehien laburtzea eta funtsezkoak ez diren formalitateak murriztea dakartza berekin, baina inoiz ez prozeduraren faseak eta izapideak ezabatzea.

56. artikulua.— 1. Aberri Batzarrean erabakiak hartzeko, alderdikideei iritzia eskatu beharko zaie, nahitaez:

a) Alderdiaren barneko karguak eta kargu publikoetarako hautagaiak aukeratzean, estatutu hauetan eta estatutuok garatuko dituzten hauteskundeei buruzko erregelamenduek ezarritako prozeduraren arabera;

b) Aberri Estatutuak aldatzean;

c) Batzar Nagusiaren Erregelamendua, Diziplinazko Erregelamendua, Aberri Berme eta Zaingo Batzordearen Erregelamendua, eta Hauteskundeei buruzko Erregelamendua aldatzean;

d) Euzkadi Buru Batzarreko kideentzat bateraezintasunak kentzea planteatzen denean;

e) Aberri Batzarra osatzen duten kideen herenak edo Euzkadi Buru Batzarrak hala erabakitzen duenean;

f) Herrialde-erakunde bik edo uri erakundeen % 15ek hala eskatzen dutenean.

2. Uri erakundeek herrialdeko batzarrean dituzten ahaldunek ezin izango dute botorik eman herrialdeetako batzarretan eta herrialdeetako erakundeek Aberri Batzarrean dituzten ordezkariak ezin izango dute botorik eman Aberri Batzarrean, baldin eta aurretiaz ez bada erabakirik hartu urietako eta herrialdeetako batzar eskudunetan eskuartean darabilten gaiari buruz.

57. artikulua.— 56. artikuluan aipatu dira alderdikideei iritzia eskatzeko prozesuak; bada, artikulua horren a) eta d) apartatueta aipatutako prozesu horietan aginduzko manamendua dagoela ulertuko da. Ondore horietarako, aginduzko manamendutzat joko da batzar eskudunetan lehenengo bozketan agertzen den borondatea bere horretan ematea. Hala eta guztiz ere, batzar eskudunek beren-beregi eman diezaiekete baimena euren ordezkari, osotasunean edo zati batean, bestelako iritziak defendatzeko hautaketak ematen dituen aukeren esparruaren barruan.

58. artikulua.— Erabakiak hartzerakoan, 56.1. artikulua b), c), e) eta f) apartatuek aipatzen dituzten gaietan, urietako eta herrialdeetako batzarren erabakiek ahalduak eta ordezkariak derrigortuko dituzte, izaera loteslearekin, eurek jasotako iritzietatik hurbilen daudenen alde egiteko, eztabaidak ematen dituen aukeren esparruaren barruan.

59. artikulua.— 56. artikuluko kasuetatik at, uri erakundeen eta herrialdeetako erakundeen ordezkariak hartu ahal izango dute eurek egokiesten duten jarrera, eta batzar eskudunetan zuri bide egokia egin beharko dute; betiere, ordezkari horiek beren kargutik kendu ahal izango dira.

59 bis artikulua.— Kontsulta ez-lotesleak.

Aberri Batzarrak proposatuta, zuzeneko kontsulta ez- lotesleak deitu ahal izango dira, alderdikideei kontu jakin batzuen inguruko iritzia eskatzeko.

VII. TITULUA

BURU BATZARRAK

I. kapitula

URI BURU BATZARRAK

60. artikulua.— Uri buru batzarrak dira EAJ-PNVren uri erakunde bakoitzaren organo betearazleak.

61. artikulua.— EAJ-PNVren barne-araudiak zehaztu edo, hori izan ezean, uri batzarrak erabakitzen duen beste kidek osatuko dituzte uri buru batzarrak; betiere, ezin izango dira inoiz hiru baino gutxiago izan, hots, presidente, idazkari eta diruzain gisa jardungo dutenak. Uri buru batzarreko presidentea euskalduna izango da 100 alderdikide baino gehiago dituzten erakunde guztietan, baldin eta alderdikideen osagai demografikoak horretarako aukera ematen badu.

62. artikulua.— Uri batzarrek bi urtetik behin bilkura arruntean hautatuko dituzte uri buru batzarretako burukideak urtearen lehenengo bi hilabeteen barruan, betiere herrialdeko batzar arrunta egin baino lehen, aberri-estatutu hauen XI. tituluan xedatutakoaren arabera.

63. artikulua.— Hauek dagozkio uri buru batzarrari:

1. Uri batzarraren erabakiak betearaztea, eta, eskuordetzeaz, herrialdeko buru batzarraren erabakiak ere.

2. Uri batzarra batzartuta ez dagoenean, uri erakunde bakoitzaren eremuan EAJ-PNVren zuzendaritza politikoa egikaritzea, bere batzarrari guztiaren berri emanez eta herrialdeko buru batzarrak edota Euzkadi Buru Batzarrak euren eskumenen eremuan hartzen dituzten erabakiak errespetatuz.

3. Uri batzarrari urteko jarduketa-programa aurkeztea.

4. Gobernu-akordioak eta izaera egonkorreko itunak onestea edota horrelako akordioak hausteko erabakiak hartzea, beren-beregi bere eremuko uri erakundeei dagokienez eta betiere herrialdeko buru batzarrari aldez aurretik esanda eta azken honek hori bere eskumeneko legez galdatzen ez badu. Horren guztiaren berri al bait arinen emango dio uri batzarrari.

5. Jarraibide politikoak finkatzea, udal-kargu publikoak orientatzea, laguntzea eta kontrolatzea, bai eta izendapeneko karguak ere, baldin eta azken karguon izendapenean zuzenean edo zeharka parte hartu badu. Eginkizun horiek buru batzarren artekoetan dituen ordezkarien bitartez beteko ditu, buru batzarren artekoak dauden udalerrietan.

6. Uri batzar arruntetarako zein berezietarako deialdia egitea.

7. Uri buru batzarrak proposatuta, uri batzar arruntari hauek aurkeztea, uri batzarrak onets ditzan: itxitako aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak eta hurrengo ekitaldi ekonomikorako aurrekontua; horiek ekitaldiko lehenengo bi hilabeteen barruan aurkeztuko ditu, betiere herrialdeko batzar arrunta egin baino lehen. Gainera, urteko kontuak herrialdeko buru batzarrari bidaliko dizkio kontu-aztertzaileen txostenarekin batera, kontuak kontsolidatzeko.

Uri erakundearen ekonomiaren eta ondarearen kudeaketa herrialdeko buru batzarrari lagata dagoenean 38.12 artikuluaaren arabera, orduan, itxitako ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak eta

hurrengo ekitaldi ekonomikorako aurrekontua, behin herrialdeko buru batzarrak proposatu eta uri buru batzarrak ontzat emanda, aurreko paragrafoan adierazitako moduan jarriko dira onespenera.

8. EAJ-PNVren barne-araudian beren-beregi eratzikitzen zaion beste edozein eginkizun, hargatik eragotzi gabe Aberri Estatutuetan eta herrialdeetakoetan ezarritakoa.

II. kapitula

HERRIALDEETAKO BURU BATZARRAK

64. artikulua.— Herrialdeetako buru batzarrak herrialdeetako erakundeen organo betearazleak dira.

65. artikulua.— Herrialdeetako buru batzarrak gehienez 15 kidek osatuko dituzte, kopurua inola ere 10etik behera ezin dela jaitsi; kide horiek hautatuko dira batzar bakoitzak erabakitzen dituen antolaketa-arauek eta erregelamenduen arabera.

66. artikulua.— Hauek dagozkio herrialdeko buru batzarrari:

1. Bere batzarraren erabakiak betearaztea, eta, eskuordetzeaz, Euzkadi Buru Batzarraren erabakiak ere.

2. Herrialdeko batzarra batzartuta ez dagoenean, bere lurraldean EAJ-PNVren zuzendaritza politikoa egikaritzea, bere herrialdeko batzarrari guztiaren berri emanez eta Euzkadi Buru Batzarrak bere eskumenen eremuan hartzen dituen erabakiak errespetatuz.

3. Agintaldiak iraungo duen aldirako herrialdeko buru batzarraren jarduketara-programa herrialdeko batzarrari aurkeztea, bai eta urteroko jarduketara-planak ere.

4. Gobernu-akordioak eta izaera egonkorreko itun politikoak onestea, baldin eta hauek bakarrik ukitzen badituzte:

a) bere eremuko herrialdeko instituzioak, lehenago haiei buruzko informazioa Euzkadi Buru Batzarrean emanez, baldin eta azken honek horiek bere eskumeneko legez galdatzen ez baditu;

b) herrialdeko erakundeko udal-instituzio bi edo gehiago,

horren guztiaren berri albait arinen emango dio herrialdeko batzarrari.

5. Herrialdearentzat interes estrategikokoak direlako adierazpena proposatzea, udalerriaren maila gainditzen duten plan, proiektu edota ekimenetarako, hargatik eragotzi gabe interes estrategiko nazionalako plan, proiektu eta ekimenetarako ezarritakoa.

6. Jarraibide politikoak finkatzea, bere eremuan diharduten herrialdeko kargu publikoak orientatzea, laguntzea eta kontrolatzea, bai eta izendapeneko karguak ere, baldin eta azken karguon izendapenean zuzenean edo zeharka parte hartu badu.

7. Jarraibide politikoak finkatzea, eta udalerrietako kargu publikoak orientatu, lagundu eta kontrolatzea euren karguagatik udalez gaindiko eremuan jarduten dutenean.

8. Uri erakundeen artean azaldu daitezken desadostasunak ebaztea.

9. Herrialdeko batzar arruntari hauek aurkeztea, herrialdeko batzarrak onets ditzan: itxitako ekitaldi ekonomikoko herrialde-mailako urteko kontu kontsolidatuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua; horiek ekitaldiko lehenengo bi hilabeteen barruan aurkeztuko ditu. Gainera, urteko kontuak Euzkadi Buru Batzarrari bidaliko dizkio herrialdeko kontu-aztertzaileen txostenarekin batera, kontuak kontsolidatzeko.

10. Aberri Batzarrari proposamenak aurkeztea.

11. Aberri-estatutu hauek eratxekitzen dizkioten eginkizun guztiak.

III. kapitulua

EUZKADI BURU BATZARRA

67. artikulua.— EUZKADI BURU BATZARRA aberri-organo betearazlea da eta, Aberri Batzarrak eskuordetuta, aginte gorena du. Bere eskumenen eremuan hartutako erabakiak derrigor bete behar dituzte EAJ-PNVren alderdikideek eta gainerako organoek.

68. artikulua.— 1. Hauek dira Euzkadi Buru Batzarreko kideak:

a) Euzkadi Buru Batzarreko presidentea, euskalduna izan behar duena;

b) herrialdeetako buru batzarretako presidenteak, euskaldunak izan behar dutenak, salbu eta euskara hizkuntza ofiziala edo koofiziala ez den herrialdeetan;

c) zortzi burukide, euskaldunak izan behar dutenak, baldin eta osagai soziolinguistikoak horretarako aukera ematen badu.

2. Aurretiaz ikusten bada aurreko puntuaren b) apartatuan aipatzen diren Euzkadi Buru Batzarreko kideetarik baten bat gutxienez bi hilabetez kanpoan egon daitekeela, aldi baterako hutsaldi hori herrialdeko buru batzarreko idazkariak beteko du edo, herrialdeko buru batzarreko buruordeak, horrelakoa dagoen kasuetan; ondore guztietarako, ordezkoa jarduneko presidente gisa arituko da.

3. Euzkadi Buru Batzarreko kideek gutxienez lau urte egon behar dute alderdikideturik.

4. 68.1.a) eta c) artikulua aipatzen dituen Euzkadi Buru Batzarreko burukideek gutxienez sei urte egon behar dute alderdikideturik.

69. artikulua.— Hauek dagozkio Euzkadi Buru Batzarrari:

1. Aberri Batzarrak hartutako erabakiak betearaztea, eta, hura batzartuta ez dagoenean, EAJ-PNVren zuzendaritza politiko orokorra egikaritzea, Aberri Batzarrari guztiaren berri emanez.

2. Alderdiaren lege-ordezkaritza.

3. EAJ-PNVren administrazioa, eta horretarako:

a) EAJ-PNV eraenduko duten kontratazio-arauak ezartzea.

b) Itxitako ekitaldiko kontuak, aberri-mailan kontsolidatuak, eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua Aberri Batzar arruntari ekitaldiko lehenengo hiru hilabeteen barruan aurkeztea, berak onets ditzan.

c) EAJ-PNVren urteko kontu kontsolidatuak formulatzea, Estatuko Kontuen Auzitegian aurkezteko.

d) Kontabilitatearen, diruzaintzaren, inbentarioaren eta balantzearen liburuak eramatea, zeinen edukia erregelamendu bidez finkatuko baita une oro Alderdiaren egoera finantzarioa ezagutzeko aukera eman dezaten.

4. Alderdiaren arduradun ekonomiko-finantzarioa izendatzea, haren erregelamenduak zehazten duen prozeduraren arabera.

5. Aberriko hauteskunde-programak onestea.

6. Aberriko hauteskunde-kanpainak zuzentzea.

7. Aberri Batzarrari proposamena egitea aberriko edota Euzkadiz kanpoko instituzioei eragiten dieten koalizioak, itunak, legegintzaldietarako akordioak eta gainerako akordio egonkorrak onesteko.

8. Gobernu-akordioak eta izaera egonkorreko itun parlamentarioak onestea, baldin eta horiek ondokoak ukitzen badituzte:

a) herrialde-erakunde bi edo gehiago,

b) zenbait herrialdetako erakundeetako udal-instituzio bi edo gehiago,

horren guztiaren berri al bait arinen emango dio Aberri Batzarrari.

9. Agintaldiak iraungo duen aldirako jarduketa-programa Aberri Batzarrari aurkeztea, hautatuak izan eta hurrengo hiru hilabeteetan, bai eta urteroko jarduketa-planak ere.

10. Herrialdearen maila gainditzen duten plan, proiektu edota ekimenak aberriarentzat interes estrategikokoak direlako adierazpena onestea.

11. Jarraibide politikoak finkatzea, aberriko eta Euzkadiz kanpoko kargu publikoak orientatzea, laguntzea eta kontrolatzea, bai eta izendapeneko karguak ere, baldin eta azken karguon izendapenean zuzenean edo zeharka parte hartu badu.

12. Herrialdeetako buru batzarrek egiten dituzten EAJ-PNVren giza baliabideen prestakuntza- eta plangintza-programak koordinatzea.

13. Alderdien Erregistroan eta bere webgunearen bidez Alderdiaren estatutuetan eta gobernu-organoen eta ordezkaritzaaren osakeran eginiko aldaketa guztien berri ematea, lege ezarritako moduan eta epeen barruan.

14. *Compliance Penal* edo Delituen Prebentzio Plana eta haren aldaketak onestea.

15. Alderdizaleak arautzea eta haien funtzionamenduaren berri ematea Aberri Batzarrari.

16. Aberri Batzarrari proposamena egitea, zuzeneko kontsulta ez-lotesleak deitzeko alderdikideei kontu jakin batzuen inguruko iritzia eskatzeko.

17. Irizpideak eta prozedurak erregelamenduz ezartzea, kontsulta-mekanismo horiek garatzeko.

18. Alderdikideen Erregistro Nazionala eramatea.

19. Alderdikideek eta izendapeneko karguek egin beharreko Etika-eta Jokabide-kodearen sinaduren erregistroa eta jarraipena egitea.

20. Estatutu hauek eratxekitzen dizkioten eginkizun guztiak.

70. artikulua.— Euzkadi Buru Batzarrak bere burua eraenduko du, berak onetsitako erregelamenduaren bidez, eta Aberri Batzarrari emango dio haren berri.

VIII. TITULUA

BATZORDE SEKTORIALAK

71. artikulua.— Buru batzar eskudunak batzorde sektorialak sortu ahal izango ditu; helburua, berriz, hauxe izango da: konplexutasun, garrantzi edo eragin handiko gaiak lantzea, betiere buru batzar eskudun horri laguntza emateko.

72. artikulua.— Buru batzarrak batzorde sektorial hori osatuko duten pertsonak aukeratuko ditu; izan ere, pertsonok beren arloan ikuspegi estrategiko eta kualifikatua eskainiko dute, Alderdiaren politikak aberasteko.

73. artikulua.— Buru batzar eskudunek eratu ahal dituzten batzorde sektorialak modu presentzialean, telematikoa edo hibridoan bildu ahal izango dira, baldin eta haien segurtasuna eta pribatutasuna bermatzen badira indarrean dagoen araudiaren arabera.

IX. TITULUA

ORGANO JUDIZIALAK, ETA BERME- ETA KONTROLEKOAK

I. kapitulua

ORGANO JUDIZIALAK

Lehenengo atala:

Aspektu orokorrak

74. artikulua.— 1. Eginkizun judiziala epaimahaiak egikarituko dute, zeinak batzar eskudunek aukeratuko baitituzte. Epaimahaiok guztiz independenteak izango dira beren eginkizunen egikaritzan.

2. Organo judizialek euren dagokien batzarrean aurkeztuko dute euren zuribidea, baina euren kargua prestutasunez bete dutela adierazteko bakarrik, ez, ostera, euren ebazpenen edukia aztertzeo, azken horiek aipatu besterik ez baitute egingo.

75. artikulua.— Organo judizialek hauek dituzte eratzekita:

1. diziiplina-eginkizuna, eta

2. EAJ-PNVren organoek arauzko baldintzak bete gabe edo beren eskumenak gaindituz hartutako erabakien aurkako aurkaratzeak ebaztea.

76. artikulua.— Diziiplina-eginkizunean organo judizialek kontuan hartuko dituzte Justiziako Aberri Epaimahaiak emaniko ebazpenak.

Bigarren atala:

Herrialdeetako epaimahaiak

77. artikulua.— Herrialde bakoitzean eginkizun judiziala herrialdeko epaimahaiak egikarituko du, eta hori osatuko dute gutxienez hiru urteko antzintasuneko alderdikidetza duten hiru-bost alderdikidek, zeinak herrialdeko batzarrak aukeratuko baititu lau urteko aldirako.

Haren antolaketa eta funtzionamendu-araubidea herrialdeko batzarrak arautuko ditu.

78. artikulua.— Herrialdeko epaimahaiaren ardurakoak izango dira:

Lehenengo auzialdian:

- a) herrialdeetako buru batzarren kideek beren kargua egikaritzean egiten dituzten jarduketan aurkako salaketak;
- b) herrialdeko buru batzarrak edo herrialdeko batzarrak hartutako erabakien aurkako aurkaratzeak;
- c) udal-eremuko arazo guztiak.

Hirugarren atala:

Justiziako Aberri Epaimahaia

79. artikulua.— Aberri-mailan justizia-eginkizuna Justiziako Aberri Epaimahaiak egikarituko du, eta hori osatuko dute gutxienez sei urteko antzinatasuneko alderdikidetza duten zazpi alderdikidek, zeinak Aberri Batzarrak aukeratuko baititu lau urteko aldirako. Epaimahaiburuak euskalduna izan beharko du, eta bera epaimahaiko kideek aukeratuko dute euren artetik; Justiziako Aberri Epaimahaiaren antolaketa eta funtzionamendu-araubidea Aberri Batzarrak arautuko ditu.

80. artikulua.— Justiziako Aberri Epaimahaiaren ardurakoak izango dira:

1. Lehenengo auzialdian:

- a) herrialdeetako buru batzarren arteko salaketak, edo Euzkadi Buru Batzarreko kideek beren kargua egikaritzean egiten dituzten jarduketan aurkako salaketak;
- b) herrialdeetako epaimahaietako kideen aurkako salaketak, kideok euren kargua egikaritzean;
- c) Euzkadi Buru Batzarrak, Aberri Batzarrak edo Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak hartutako erabakien aurkako aurkaratzeak;
- d) Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak instruitzen dituen jakinarazpenak edota salaketak, betiere *Compliance Penal* edo Delituen Prebentzio Planaren arloan.

2. Bigarren auzialdian, herrialdeetako epaimahaiek lehenengo auzialdian emandako ebazpenen aurkakoak.

81. artikulua.— Justiziako Aberri Epaimahaiko kideak eta Euzkadi Buru Batzarra, organo gisa, Aberri Batzarrak bakarrik epaitu ahal izango ditu, auzia instruitzen duten pertsonak aurretik izendatuta.

Aberri Batzarra, eginkizun judiziala egikaritzen duenean, guztiz independentea izango da, eta haren epaitzak ezin izango dira apelatu.

82. artikulua.— Justiziako Aberri Epaimahaiaren epaitzak ezin izango dira apelatu. Lehenengo auzialdiko ebazpenen ziozko epaitza bada, pertsona ukituak edo organo ukituak auzia berrius dadin eska dezake, epaia jakinarazi eta ondorengo 45 egunetako epean.

II. kapitulua

BERMEAK ETA KONTROLA

83. artikulua.— Aberri Berme eta Zaingo Batzordea organo bat da, eta bera osatuko dute gutxienez sei urteko antzintasuneko alderdikidetza duten zazpi alderdikidek; zazpiok Aberri Batzarrak aukeratuko ditu. Batzordeburuak euskalduna izan beharko du, eta bera batzordeko kideek aukeratuko dute euren artetik.

Haren antolaketa eta funtzionamendu-araubidea Aberri Batzarrak onetsitako erregelamenduaren arabera arautuko dira.

84. artikulua.— Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak beren-beregi ditu eratxikita Alderdiaren barneko hauteskunde-prozesuei jarraitzeko eta beraiek kontrolatzeko ahalmenak, bai eta Alderdiaren barneko herrialdeetako zein aberriko kargu guztien egoera aztertzea ere estatutuen ikuspegitik, betiere bateraezintasunen sisteman ezarritakoari jarraikiz.

Haren irizpenak, arlo honetan, lotesleak dira, eta haien aurkako errekurtoa Justiziako Aberri Epaimahaiari bakarrik jar dakioke.

Aberri Berme eta Zaingo Batzordea da *Compliance Penal* edo Delituen Prebentzio Planaren eta Etika- eta Jokabide-kodearen arloko arauak betetzen direla egiaztatuko duen organoa. Era

berean, plana kontrolatzeko organoaren atazak garatuko ditu — eguneratzea, gainbegiratzea—, eta kanal etikoaren bidez aurkeztu ahal diren komunikazioak edo salaketak instruitzeaz arduratuko da.

85. artikulua.— 1. Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak, aldi berean:

a) aberri-, herrialde- zein uri-eremuetako estatutu eta erregelamenduen eguneratzea zainduko du, eta horiek interpretatzerakoan kontsulta-organoa izango da, eta, egoki jotzen duenean, batzarrei proposatuko die arau horiek aldatzea;

b) bitartekaritza-ahalmena egikaritzeko du, eta alderdikideen eskubideak defendatu eta bermatzeko ahalmena egikaritzeko du EAJ-PNVren alderdikideen eta organoen artean sor daitezkeen gatazketan, baldin eta bitartekaritza hori alde horietako batek eskatzen badio soilik;

c) berezko dituen eginkizunak egikaritzeko, aberri-, herrialde- zein uri-eremuetako estatutu eta erregelamenduen artxibo eguneratuari eutsiko dio.

Kasu horietan guztietan, haren irizpenak gomendioak baino ez dira izango.

2. Aberri Berme eta Zaingo Batzordea legitimatuta dago, bere eskumeneko arazoetan, auzi-jartzaile gisa jarduteko organo judizialean.

III. kapitulua

KONTU-AZTERTZAILEAK ETA KONTU-AZTERTZAILEEN ABERRI BATZORDEA

Lehenengo atala:

Aspektu orokorrak

86. artikulua.— Urietako eta herrialdeetako erakundeetako kontu-aztertzaileek eta Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak eginkizun hau dute: EAJ-PNVn eduki ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak dakartzaten egintza eta dokumentuen kontu-hartzea eta kontabilizazioa kontrolatzea, eta horren berri ematea.

Fiskalizazio-eginkizunaren barruan, informazioa emango dute EAJ-PNVren barne-kontrolako sistema osatzen duten arau eta protokoloen egokitasunari eta betetzeari buruz.

Bigarren atala:

Urietako kontu-aztertzaileak

87. artikulua.— Urietako kontu-aztertzaileak, gehienez ere hiru, urtero hautatuko dira uri batzar arruntean eta, ahal dela, uri erakundeko alderdikideen artean.

Uri batzarrak erabakia hartu ahal izango du kontu-aztertzaileak izendatzeko ahalmena herrialdeko buru batzarrari lagatzeko, eta lagapen hori indarrean dagoela ulertuko da batzarrak berak hura ezeztatzen ez duen bitartean.

Lehenengo bihilekoaren barruan uri batzarrak ez badu kontu-aztertzailearik hautatu, edo ahalmen hori herrialdeko buru batzarrari laga ez badio, edo uri erakundeak erabakia hartu badu bere ekonomiaren eta ondarearen kudeaketa herrialdeko buru batzarrari lagatzeko, orduan, herrialdeko buru batzarrak berak izendatu beharko ditu uri erakundeko kontu-aztertzaileak.

Urietako kontu-aztertzaileak urtean behin batzartuko dira gutxienez, zertarako eta itxitako ekitaldi ekonomikoari buruzko txostena egiteko, betiere uri batzar arrunta egin aurretik. Horretarako, kontu-aztertzaileak edo kontu-aztertzaileek eskatuta, uri buru batzarrak berorien esku jarriko du beren fiskalizazio-eginkizuna betetzeko behar duten informazio eta dokumentazio guztia.

Txostena uri batzarrak onetsi beharko du, eta ekitaldiko lehenengo bi hilabeteen barruan uri buru batzarrak herrialdeko buru batzarrari bidaltzen dizkion kontuekin batera aurkeztu beharko da.

Emandako txostenak, egiturari, formari eta gutxieneko edukiari dagokienez, Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak ezarritako jarraibideak errespetatuko ditu.

Hirugarren atala:

Herrialdeetako kontu-aztertzaileak

88. artikulua.— Herrialdeko kontu-aztertzaileak bi urtean behin aukeratuko dira herrialdeko batzar arruntean. Horretarako, bi kontu-aztertzaile eta bi ordezeko izendatu beharko dira.

Herrialdeko kontu-aztertzaileek beharrezko jotzen duten aldizkakotasuna zehaztuko dute, eta gutxienez urtean behin batzartuko dira, itxitako ekitaldi ekonomikoari buruzko txostena egiteko, betiere herrialdeko batzar arrunta egin aurretik. Horretarako, herrialdeko buru batzarrak, kontu-aztertzaileek eskatuta, berauen esku jarriko du beren fiskalizazio-eginkizuna betetzeko behar duten informazio eta dokumentazio guztia.

Txostena herrialdeko batzar arruntak onetsi beharko du, eta ekitaldiko lehenengo bi hilabeteen barruan herrialdeko buru batzarrak Euzkadi Buru Batzarrari bidaltzen dizkion kontuekin batera aurkeztu beharko da.

Emandako txostenak, egiturari, formari eta gutxienerako edukiari dagokienez, Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak ezarritako jarraibideak errespetatuko ditu.

Laugarren atala:

Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordea

89. artikulua.— Aberri Batzarrak aukeratuko du Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordea, lau urteko aldirako, eta herrialde bakoitzeko kontu-aztertzaile bat aukeratuko da batzorde hori osatzeko; kide horiek, berriz, herrialde-erakundeetako bakoitzaren ordezkarien artean aukeratuko dira.

Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak EAJ-PNVren barne-kontrolako sistema osatzen duten arauak eta protokoloak zehaztu eta onetsiko ditu.

Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak zehaztuko du zein aldizkakotasunekin batzartu behar duen, baina gutxienez hiruhileko natural bakoitza itxitakoan batzartu beharko du.

Ekitaldia itxitakoan, txostena egingo du Aberri Batzar arrunta egin aurretik. Horretarako, Euzkadi Buru Batzarrak, Kontu-aztertzaileen

Aberri Batzordeak hala eskatuta, beronen esku jarriko du bere fiskalizazio-eginkizuna betetzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia.

Txostenak, egiturari, formari eta gutxieneko edukiari dagokienez, Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak erakunde osorako ezarritako jarraibideak errespetatuko ditu; txosten hori Aberri Batzar arruntak onetsi beharko du.

X. TITULUA

KARGU PUBLIKOAK

I. kapitulua

UDAL-KARGU PUBLIKOAK

90. artikulua.— 1. Uri batzarrari edo udalerri bateko uri batzarrei dagokie udalerrietako karguetarako herri-hautapeneko hautagaiak aukeratzea, hots, alkate eta zinegotziak hautatzea:

a) uri buru batzar bakoitzak edo buru batzarren artekoak proposatuta, halakoa dagoen tokian;

b) herrialdeetako hiriburuetan, uri buru batzar bakoitzak edo buru batzarren artekoak, halakoa dagoen tokian, eta herrialdeko buru batzarrak elkarrekin proposatuta.

2. Uri batzarrak edo uri batzarrek, zati batean edo osorik, onartu edo ezetsi ahal izango dute proposamena, edo alderdikideek aurkeztutako beste batzuekin osa dezakete proposamen hori.

3. Herrialdeko batzarrak ebatziko du, hari dagokion herrialdeko buru batzarrak bitartekari lana eginda:

a) akordiorik ez badago hasierako proposamenaren gainean buru batzarren artekoan, edo uri buru batzarraren edo buru batzarren artekoaren eta herrialdeko buru batzarraren artean;

b) uri batzar guztien ahobatezko ebazpenik ez badago hautagaien azkeneko proposamenaren inguruan, hiriburuetan izan ezik; hain zuzen ere, hiriburuaren kasuan, eragindako batzarretako bi herenek berronetsi behar dute azken proposamena.

91. artikulua.— Uri erakundeak jarraibide politikoak finkatuko ditu, eta udal-kargu publikoen kudeaketa orientatu, lagundu eta kontrolatuko du, bere zuzendaritza-organoen bidez: uri buru batzarra eta uri batzarra, edo buru batzarren artekoa eta berauosatzen duten uri batzarrak.

Herrialdeetako hiriburuetan, uri buru batzarreko presidenteak, edo, bestela, herrialdeko buru batzarrak izendatutako buru batzarren artekoaren kideek herrialdeko buru batzarrari eta, honen bidez, herrialdeko batzarrari jakinaraziko diete zeintzuk diren udal-kudeaketak herrialdeko politikan dakartzan ondorioak.

92. artikulua.— Udal-kargu publikoen eskumeneko diren izendapeneko kargu guztien izendapen-proposamena aurretiaz aztertuko da uri buru batzar eskudunarekin edo buru batzarren arteko eskudunarekin, halakoa dagoen tokian. Izendapeneko karguak alderdikide ez direnean, aurretiaz onetsi beharko dira izendapenok.

II. kapitulua

HERRIALDEETAKO KARGU PUBLIKOAK

93. artikulua.— 1. Herrialdeetako batzarrei dagokie, herrialdeetako buru batzarrek proposatuta, herri-hautapeneko herrialdeetako karguetarako hautagaiak aukeratzea.

Herrialdeetako buru batzarrek beren herrialdeetako batzarrei aurkezten dizkieten proposamenak egingo dira, uri erakundeek euren batzarretan erakutsi duten gehiengoaren borondateari begirunerik handiena zainduz. Proposamen horiek jakin behar dituzte uri erakundeek behar besteko denboraz, hautapena egin behar duten herrialdeetako batzarrak egin aurretik.

Herrialdeko batzar bakoitzak, zati batean edo osorik, onartu edo ezetsi ahal izango dituzte euren herrialdeko buru batzarraren

proposamenak, edo beste hautagai batzuekin osa ditzakete proposamen horiek.

2. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako presidenterako hautagaiak, eta Nafarroako Foru Parlamenturako presidenterako hautagaia, baita ahaldun nagusigaia edo Nafarroako Gobernuako presidentegaia, Pirinio Atlantikoetako departamentuko kontseilari nagusigaia edo Akitania Berriko erregioko kontseilarigaia ere herrialdeko batzar bakoitzak aukeratuko ditu, bere herrialdeko buru batzarrak aurkezten dituen proposamenak oinarri hartuta.

94. artikulua.— Herrialdeetako erakundeek jarraibide politikoak finkatuko dituzte, eta euren zuzendaritza-organoen bidez orientatu, lagundu eta kontrolatuko dute herrialdeetako kargu publikoen kudeaketa.

95. artikulua.— 1. Herrialde-eremuko herri-hautapeneko kargu publikoen eskumeneko diren izendapeneko kargu guztien izendapen-proposamena, kasuan-kasuan, aurretiaz aztertuko da herrialdeko buru batzar eskudunarekin. Izendapeneko karguak alderdikide ez direnean, aurretiaz herrialdeko buru batzarrak onetsi beharko ditu izendapenok.

2. Prozedura bera beteko da administrazio publikoaren, organismo autonomoen eta ente instituzionalen izendapeneko kargu guztiak izendatzeko, baita ere zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten sozietate publiko eta enpresetan.

III. kapitulua

ABERRIKO KARGU PUBLIKOAK

96. artikulua.— 1. Aberri Batzarrari dagokio, Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, aberriko eta Euzkadiz kanpoko herri-hautapeneko karguetarako hautagaiak aukeratzea.

2. Eusko Legebiltzarrerako presidentegaiak eta Eusko Jaurilaritzarako lehendakariagaiak euskaldunak izan beharko dute.

3. Euzkadi Buru Batzarraren proposamenak egingo dira, herrialdeetako erakunde guzti-guztiek erakutsi duten gehiengoaren borondateari begirunerik handiena zainduz.

Aberri Batzarrak, zati batean edo osorik, onartu edo ezetsi ahal izango ditu Euzkadi Buru Batzarraren proposamenak, edo beste hautagai batzuekin osa ditzake proposamen horiek.

97. artikulua.— Euzkadi Buru Batzarrak eta Aberri Batzarrak finkatuko dituzte jarraibide politikoak, eta aberriko eta Euzkadiz kanpoko herri-hautapeneko kargu publikoen kudeaketa lagundu eta kontrolatuko dute; hori ez ezik, Euzkadi Buru Batzarrak eta Aberri Batzarrak zainduko dute karguon jarduketa gardena dela eta Alderdiaren organo eskudunei aldiari-aldiari kontuak ematen zaizkiela.

Era berean, kargu horien jardun politiko eta instituzionalaren ebaluazioa egingo dute, eta berraztertu dute mekanismoak egongo direla karguon erantzukizun publikoen egikaritzaren jarraipenerako eta etengabeko hobekuntzarako.

98. artikulua.— 1. Aberriko edota Euzkadiz kanpoko eremuetako herri-hautapeneko kargu publikoen eskumeneko diren izendapeneko kargu guztien izendapen-proposamena, kasuan-kasuan, aurretiaz aztertuko da Euzkadi Buru Batzarrarekin. Izendapeneko karguak alderdikide ez direnean, aurretiaz Euzkadi Buru Batzarrak onetsi beharko ditu izendapenok.

2. Prozedura bera beteko da administrazio publikoaren, organismo autonomoen eta ente instituzionalen izendapeneko kargu guztiak izendatzeko, baita ere zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten sozietate publiko eta enpresetan.

99. artikulua.— Euzkadi Buru Batzarrak, herrialdeetako buru batzarrek eta uri buru batzarrek, euren eskumenen eremuan eta Euzkadi Buru Batzarrak eta herrialdeetako buru batzarrek elkarrekin hartutako irizpide orokorren arabera, derrigor ezarriko dituzte araubide ekonomikoa eta kargu publikoek eta izendapeneko karguek EAJ-PNVri egin beharreko ekarpenak; eta, era berean, zaindu egingo dute haiek betetzen direla, berraztertuko direla eta aldiari-aldiari eguneratuko direla.

Alderdikide ez diren pertsonak izendapeneko karguak betetzeko izendatzen diren kasu guztietan, proposatzaileak aurkeztu beharko du proposatutakoak sinatutako idazkia; idazki horretan hauek agertuko dira: proposatutakoaren konpromisoa, EAJ-PNVren ideologia, programak eta proiektu politikoa errespetatzeko; EAJ-PNVren Delituen Prebentzio Plana eta Etika- eta Jokabide-kodea ezagutzen dituela eta beroriek beteko dituela dakarren

konpromisoa, bai eta araubide ekonomikoa eta adosten dituzten diru-ekarpenak onartzeko konpromisoa ere. Hautagaia izendatua izan baino lehen aurkeztu beharko da idazki hori. Alderdikideen edo alderdikide ez direnen kasuan salbuespenen bat badago, izendapena buru batzar eskudunak baimendu beharko du aurretiaz.

XI. TITULUA

ALDERDIAREN BARNEKO KARGUETARAKO ETA KARGU PUBLIKOETARAKO HAUTAGAIK AUKERATZEA

I. kapitulua

OINARRIZKO ARAUAK

100. artikulua.— 1. Alderdiaren barneko hauteskunde-prozesuak sufragio unibertsal, berdin, aske, zuzeneko eta pertsonalaren araubidean gauzatuko dira. Botoa isilpekoa izango da, salbu eta batzar bakoitzak botoa emateko eskubidea duten bertaratutakoen arteko % 90eko gehiengo kualifikatuaren bidez beste era batekoa egitea erabakitzen duela. Erabaki hori isilpeko bozketan hartu beharko da.

2. EAJ-PNVren barneko karguetarako hauteskunde-prozesu guztietan, emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatuko da. Ildo horretan, gutxienez ehuneko berrogeiko eta gehienez ehuneko hirurogeiko proportzioari eutsiko zaio kide anitzeko organo bat hautatzea xede duten hauteskunde-prozesu guztietan. Kide anitzeko organoetan hautagaitza bakarrak, aurretikoak eta bereziak aukeratzen direnean, hautagaitza bakar horiek aurreko portzentajea aipatzen den zenbaketatik kanpo egongo dira.

Aukeratu beharreko hautagaien kopuruagatik ehuneko hori betetzea ezinezkoa denean, emakumeen eta gizonen proportzio hori ehuneko horretatik ahalik eta hurbilen egongo da.

Bestalde, kargu publikoak hautatzeko Alderdiaren barneko hauteskunde-prozesu guztietan, unean-unean indarrean dagoen legedia aplikatuko da.

3. Alderdiaren barneko karguen hautapenean, bai eta kargu publikoetarako hautagaien hautapenean ere, kontuan hartuko da unean-unean indarrean dagoen EAJ-PNVren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean xedatutakoa. Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, EAJ-PNVren barneko karguek eta kargu publikoek euskararen ezagutza erakutsi beharko dute beren jaiotze-data 1995etik gerozkoa bada, baldin eta derrigorrezko hezkuntza euskara ofizial den herrialde historikoetan jaso badute.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, urietako eta herrialdeetako erakundeek eta aberri-erakundeak Alderdiaren egoera soziolinguistikoa aintzat hartuko dute, eta aurreko paragrafoan aipatutako planak ahalik eta errespeturik handienarekin aplikatuko dituzte Alderdiaren barneko karguetarako eta kargu publikoetarako hautagaiak aukeratzean.

4. Sufragio-eskubidea egikaritzean ez da inoiz onartuko zerrenda itxirik, ezta alderdikideei zerrenda bat osorik bozkatzeko derrigortasuna ematen dieten mekanismoetatik ezain ere.

5. EAJ-PNVren barneko hauteskunde-prozesuak beti eraenduko dira Aberri Batzarrak onetsitako Hauteskundeei buruzko Erregelamenduak agintzen duenaren arabera.

101. artikulua.— Hauteskunde guztietan, edozein herrialde-eremutan, hautagaien aurkezpena eta hautagaiak aukeratzeko hautespen-saioa batzar banatan egingo dira.

Aurrekoa gorabehera, ez da bigarren itzulirik egingo izen bakarreko karguak hautatzen direnean, hau da, aldezturik eta bereizita hautagai bakarra aukeratu behar denean, proposamen bakarra dagoenean eta hautagai hori gehiago osoz edo gutxienez boto-eskubidea duten erakundeen erdiek proposatu dutenean.

102. artikulua.— Hautagaitzak edo idatziz batzarra egin aurretik edo batzarrean bertan aurkeztu ahal izango dira.

103. artikulua.— Kide anitzeko organo baten agintaldian posturen bat hutsik geratzen bada, eta kide anitzeko organo horrek bere kideen gehiengoari eusten badio, orduan, Alderdiaren barneko hauteskunde-prozesua hasi ahal izango da postu huts hori

betetzeko. Prozesua hasiz gero, nahitaez egin beharko da beste hauteskunde-prozesu bat hutsik geratu den/diren postua/k betetzeko.

II. kapitulua

DEIALDIAK

104. artikulua.— Hauteskunde-prozesuak uri buru batzarrek, herrialdeetako buru batzarrek edo Euzkadi Buru Batzarrak deituko dituzte, salbu eta ahalmen hori eremu bakoitzeko batzarrak beren-beregi bereganatu eta egikaritzen duela.

105. artikulua.— 1. Hauteskunde-prozesuaren deialdia, gutxienez, batzarra egin baino 7 egun natural lehenago egingo da, halako moldez non bermatuko baita alderdikideek prozesuan modu aktiboan parte hartzeko duten eskubidea egikaritu ahal izango dutela.

2. Hauteskunde-prozesuek 30 egun natural iraungo dute gehienez, baldin eta prozesuon xedea hauetako bat bada: herrialdeetako eta aberriko Alderdiaren barneko karguak edo herrialdeetako, aberriko eta Euzkadiz kanpoko kargu publikoetarako hautagaiak aukeratzea.

3. Buru batzar eskudunak, Aberri Berme eta Zaingo Batzordearen baimenarekin, presako prozedura egokia ezarriko du Alderdiaren barneko hauteskunde-prozesua garatzeko, hargatik eragotzi gabe Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak hauteskunde-arloan eratxekita dituen eginkizunak.

Presako prozedurak prozedura arruntaren funtsezko epeak laburtzea eta formalitateak murriztea ekar ditzake, baina inoiz ez prozeduraren faseak eta izapideak ezabatzea.

106. artikulua.— Oro har, herrialdeetako buru batzarren eta Euzkadi Buru Batzarraren berritze arruntak batera eta urteko bihileko berean egin ahal izango dira.

XII. TITULUA

KARGUEN EGIKARITZAREN MUGAK

I. kapitulua

AGINTALDIEN IRAUPENA

107. artikulua.— 1. Agintaldien iraupena urte bikoa izango da uri buru batzarretako karguetarako, eta laukoa herrialdeetako eta aberriko organo betearazleetarako.

2. Aberri Batzarreko ordezkarien agintaldia Euzkadi Buru Batzarraren iraupenekoa eta aldi berekoa izango da; betiere, aldi horretan Euzkadi Buru Batzarra kargutik kentzen bada, ordezkariok ez diote beren karguari utziko.

108. artikulua.— Alderdiaren barneko karguak behin bakarrik berraukeratu ahal izango dira, eta agintaldi batek igaro beharko du berriro aukeratua izan ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, kargu horiek hautatzeko eskumena duen batzarrak gehiengo kualifikatu batez beren-beregi eta banan-banan egin ditzake salbuespenak berraukeratzeari jartzen zaion muga hau aplikatzerakoan; gehiengo kualifikatu hori Hauteskundeei buruzko Aberri Erregelamenduan arautuko da.

109. artikulua.— 1. Alderdiaren barneko karguak, bera proposatzen dutenean berriro aukeratua izateko, uko egin diezaioke hautagai-izendapena onartzeari kasuan-kasuan eskuduna den organoan, Alderdiaren barneko hauteskunde-prozesuaren bigarren txandan bozkatuak izan daitezkeen hautagaien zerrenda gertatzeko unean.

2. Era berean, Alderdiaren barneko kargua edo mandatua duenak uko egin diezaioke beste kargu bat onartzeari, aurreko paragrafoan ezarritako prozedura bera betez.

II. kapitulua

BATERAEZINTASUNAK

Printzipio orokorrak

110. artikulua.— EAJ-PNVk bateraezintasunaren adigaia garatzen du, printzipio hauek oinarri hartuta: Alderdiaren barneko karguak eta Alderditik kanpoko karguak banantzekoa; boterea ez metatzekoa, eta kontrolatzailea eta kontrolatua ez nahastekoa.

Lehenengo atala:

Erabateko bateraezintasunak

111. artikulua.— 1. EAJ-PNVtik kanpoko herri-hautapeneko kargu betearazleak edo EAJ-PNVtik kanpoko izendapeneko kargu betearazleak bateraezinak dira Alderdiaren barneko karguekin, herrialde-eremu bereko buru batzarretan eta batzarretan, salbu eta 100 alderdikide baino gutxiagoko uri erakundeetan; horietan, uri batzarrak uri karguaren eta maila bereko kargu publikoaren arteko bateraezintasuna kendu ahal izango du.

2. EAJ-PNVtik kanpoko herri-hautapeneko kargu legegileak edo EAJ-PNVtik kanpoko izendapeneko kargu legegileak bateraezinak dira Alderdiaren barneko herrialde-eremu bereko kargu legegileekin.

3. Ondore horietarako, Euzkadiz kanpoko eremua aberrikotzat hartuko da.

4. EAJ-PNVko epaimahaietako kideak, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeko kideak bateraezinak dira beraien artean, eta Alderdiaren barneko beste edozein kargurekin edo kargu publiko batekin.

5. Kontu-aztertzaileak bateraezinak dira Alderdiaren barneko erakundearen barneko kargu betearazleekin, baldin eta erakunde horren ekitaldi ekonomikoaren gaineko txostena eman behar badute.

6. Herrialdeetako buru batzarrei edo Euzkadi Buru Batzarrari atxikitako langile aktiboak bateraezinak dira Alderdiaren barneko herrialde- eta aberri-eremuetako edozein kargurekin.

Bigarren atala:

Alderdiaren barneko karguen arteko bateraezintasunak

112. artikulua.— 1. Herrialdeko buru batzarreko burukidea eta hauek bateraezinak dira:

a) uri buru batzar bateko burukidea edo uri erakunde batek izendatutako buru batzarren artekoaren kidea, salbu eta herrialdeko batzarrak bateraezintasuna kentzen duela;

b) Euzkadi Buru Batzarreko burukidea, salbu eta herrialdeetako buru batzarretako presidenteak, beroriek Euzkadi Buru Batzarreko berenezko kideak baitira;

c) herrialdeko batzarreko ahalduna;

d) Aberri Batzarreko ordezkaria.

2. Euzkadi Buru Batzarreko burukidea eta hauek bateraezinak dira:

a) herrialdeko batzarreko ahalduna;

b) Aberri Batzarreko ordezkaria.

3. Herrialdeko batzarreko ahalduna izatea eta Aberri Batzarreko ordezkaria izatea bateraezinak dira.

Hirugarren atala:

Alderdiaren barneko karguen eta kargu publikoen arteko bateraezintasunak

113. artikulua.— 111. artikuluan identifikatutako kasuez gain:

1. Uri buru batzar bateko burukidea edo buru batzarren artekoaren kidea eta hauek bateraezinak dira:

a) zinegotzi, zuzendari edo udalerri bereko udaleko maila bereko beste edozein kargu betearazle;

b) ahaldun nagusia, edo Nafarroako Foru Gobernuako presidentea;

c) Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.

2. Herrialdeko buru batzarreko burukidea eta hauek bateraezinak dira:

- a) 20 000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako alkatea;
- b) 20 000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako zinegotzia, salbu eta EAJ-PNV ez dagoela gobernu-batzordean; horrelakoetan, herrialdeko batzarrak erabaki dezake bateraezintasuna kentzea;
- c) Lehendakaria, sailburua;
- d) Eusko Jaurlaritzako zuzendari edo maila bereko edozein kargu betearazle, salbu eta herrialdeko batzarrak bateraezintasun hori kentzea erabakitzen duela;
- e) Herrialde historikoko Batzar Nagusietako batzarkidea, edo Nafarroako Foru Parlamentuko parlamentaria, salbu eta herrialdeko batzarrak bateraezintasuna kentzea erabakitzen duela;
- f) Eusko Legebiltzarreko parlamentaria, salbu eta herrialdeko batzarrak bateraezintasuna kentzen duela;
- g) estatuko Gorte Nagusietako diputatua edo senataria;
- h) Europako Parlamentuko parlamentaria.

3. Euzkadi Buru Batzarreko burukidea eta hauek bateraezinak dira:

- a) 20 000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako alkatea edo zinegotzia;
- b) ahaldun nagusia edo foru-diputatua, edo Nafarroako Foru Gobernuako presidentea edo kontseilaria, edo Pirinio Atlantikoetako departamentuko edo Akitania Berriko erregioko kontseilaria;
- c) foru-aldundietako edo Nafarroako Gobernuko zuzendari, zuzendari nagusi edo maila bereko edozein kargu betearazle, salbu eta Aberri Batzarrak bateraezintasun hori kentzea erabakitzen duela;
- d) Eusko Legebiltzarreko parlamentaria, salbu eta Aberri Batzarrak bateraezintasuna kentzen duela;
- e) estatuko Gorte Nagusietako diputatua edo senataria;
- f) Europako Parlamentuko parlamentaria.

114. artikulua.— EAJ-PNVko kargu betearazleak bateraezinak dira sindikatuen edo enpresen erakundeen barneko antzeko karguekin.

115. artikulua.— 111. artikuluan identifikatutako kasuez gain:

1. Herrialdeko batzarreko ahalduna izatea eta hauek bateraezinak dira:

- a) Lehendakaria edo sailburua;
- b) Eusko Legebiltzarreko parlamentaria, salbu eta 100 alderdikide baino gutxiagoko uri erakundeetan;
- c) espainiar estatuko Gorte Nagusietako diputatua edo senataria, eta frantziar estatuko Parlamentuko parlamentaria edo senataria;
- d) Europako Parlamentuko parlamentaria.

2. Aberri Batzarreko ordezkaria izatea eta hauek bateraezinak dira:

- a) hiriburuetako zinegotzia;
- b) alkatea, ahaldun nagusia edo foru-diputatua;
- c) Nafarroako Foru Gobernuako presidentea;
- d) Nafarroako Foru Gobernuako kontseilaria;
- e) herrialde historikoko Batzar Nagusietako ahalduna;
- f) Nafarroako Foru Parlamentuko parlamentaria.

116. artikulua.— Kapitulu honek bateraezintasunei buruz aipatzen dituen ondoreetarako:

1. Eusko Jaurlaritzako sailei atxikitako ente, organismo, institutu edo sozietateetako zuzendariak eta kudeatzaileak estatutu hauen 113. artikuluko 3.c) apartatuan aipatutako karguekin parekatuko dira.

2. Foru-sailei atxikitako ente, organismo, institutu edo sozietateetako zuzendariak eta kudeatzaileak kargu hauekin parekatuko dira: Eusko Jaurlaritzako sailburuordearekin, idazkari nagusiarekin, zuzendariarekin edo maila baliokideko beste edozein kargurekin, salbu eta herrialdeko batzarrak bateraezintasun hori kentzea erabakitzen duela.

3. Udalerriko edo udalerria baino lurralde-eremu handiagoko sozietate, enpresa edo ente publikoetako zuzendariak eta kudeatzaileak estatutu hauen 113. artikuluko 1.a) apartatuan aipatutako karguekin parekatuko dira.

117. artikulua.— Izendapeneko kargu baterako izendatuak diren Alderdiaren barneko kargu guztiek Aberri Berme eta Zaingo

Batzordeari jakinarazi beharko diote egitate hori, izendapena benetan gertatzen denetik astebeteko epean.

Kentzeko moduko bateraezintasun-arrazoia badago, Aberri Berme eta Zaingo Batzardeak berehala emango dio horren berri Alderdiaren barneko organo betearazle eskudunari, estatutueta ezarritakoaren arabera, alderdikideei iritzia eskatzeko estatutu-prozesuari hasiera emateko.

Laugarren atala:

Bateraezintasunak kentzea

118. artikulua.— 1. Bateraezintasuna ezin izango zaie kendu Euzkadi Buru Batzarreko kideen % 45i baino gehiagori.

2. Herrialdeetako buru batzarren bateraezintasunak kentzea herrialdeetako alderdikideen kopuruaren arabera haztatuko da, honela:

a) 1499raino: % 60

b) 1500etik 4999ra: % 50

c) 5000 baino gehiago % 45

3. Bateraezintasuna kendu beharra dakarten kideen kopurua handiagoa bada aurreko apartatuan ezarritako mugak baimendutakoa baino, orduan, hautetsi izaera galduko dute boto kopuru gutxien lortu dutenek.

4. Inguruabar hori Euzkadi Buru Batzarreko kideak hautatzean gertatzen bada, 1. apartatuan ezarritako % 45eko muga osatzeko lehentasuna izango dute herrialdeetako buru batzarretako presidenteei, eta orduan Aberri Batzarrak berak ebatziko du Aberri Batzarrak aukeratutako burukideetatik nori edo nortzuei kenduko zaien bateraezintasuna eta hautetsiak izaten iraun.

119. artikulua.— Bateraezintasuna kentzea onetsi edo ezetsi beharko da 45 eguneko gehieneko epean, bateraezintasun hori sortzen den egunetik zenbatuta.

Organo betearazle bakoitzak alderdikideei iritzia eskatzeko estatutu-prozesurako bidea hasiko du, hala badagokio.

120. artikulua.— Aurreko artikuluan aipaturiko epea igaro ondoren, edo bateraezintasuna kentzea ezetsi bada, bateraezintasun-arrazoa duenak, 5 eguneko epean, adierazi beharko dio organo betearazle eskudunari, kargu publikoari uko egiten dion, edo bera hautatu zuen batzarrari aurkezten dion Alderdiaren barneko kargurako dimisioa edo ukoa. Onarpena edo ezespena, gehienez, 30 eguneko epean ebatzi beharko da.

121. artikulua.— Alderdiaren barneko organo betearazleak berritzeko, aurkezten badira hautagai batzuk, eurak hautatuz gero, bateraezintasunak suertatzen direnak, orduan, inguruabar hori beren-beregi jasoko da, eta, aukeratuak badira, aukeratze horrek berez dakar bateraezintasuna kentzea, baldin eta bateraezintasun hori kendu ahal bada, alderdikideei iritzia berriro eskatu beharrik gabe.

122. artikulua.— 1. Bateraezintasunak kendu ahal izango dira estatutuetan aurreikusitako kasuetan bakarrik; eta, nolanahi ere, pertsona bakoitzeko eta beren-beregi erabaki beharko da.

2. Bateraezintasuna sortzen bada Alderdiaren barneko kargu bat eta kargu publiko bat aldi berean betetzeagatik, orduan, bateraezintasuna kendu beharko du Alderdiaren barneko kargua betetzeagatik erantzuna jaso behar duen batzarrak.

Hala eta guztiz ere, herrialde bateko buru batzarreko presidentek egikaritzen badu, aldi berean, Eusko Legebiltzarreko parlamentariaren kargua, orduan, Euzkadi Buru Batzarreko kidea izateagatik duen bateraezintasuna kentzea herrialdeko batzar eskudunak ebatziko du.

III. kapitula

KARGUAK EZ METATZEA

123. artikulua.— Aberri Batzarrak, herrialdeetako batzarrek eta uri batzarrek, euren eskumenaren eremuan, zainduko dute pertsona batek karguak ez metatzearen printzipioa betetzen dela. Horretarako, eurek egoki jotzen dituzten erabakiak hartu eta arauak emango dituzte, eta horiek eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak eskatzen dizkien datu guztiak eskuratuko dizkiote, berorrek azter dezan Alderdiaren barneko kargu guztiek betetzen dutela estatutuetan ezarritako egoera.

XIII. TITULUA

EAJ-PNVren ANTOLAKETA EKONOMIKOA

124. artikulua.— 1. EAJ-PNVk gaitasun juridiko osoa du, bere ondasun eta eskubideak eskuratu, besterendu eta haien gainean beharrezko jotzen dituen xedapen-egintzak egiteko, betiere EAJ-PNVren zuzendaritza-organismoek euren eskumenen eremuaren barruan erabakitakoaren arabera.

2. EAJ-PNVren ondarea hauek osatzen dute: urietako, herrialdeetako eta aberriko erakundeek, Euzkadiz kanpoko erakundeek, Euzko Gaztediren eta Helduen ondasunek, eskubideek eta betebeharrak; beraien mendeko organismo, entitate eta sozietateen ondasunek, eskubideek eta betebeharrak, eta aurreko guztiei lotutako fundazio eta elkarten ondasunek, eskubideek eta betebeharrak.

3. Euzkadi Buru Batzarrak arauak zehaztu eta onetsiko ditu, zeinen bitartez eraentzen baitira herrialdeetako buru batzarren ogasunak, eta beraiei dagozkien uri erakundeek, Euzkadiz kanpoko erakundeek, Euzko Gaztediren eta Helduen ogasunak.

4. Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak EAJ-PNVren barne-kontroleko sistema osatzen duten arauak eta protokoloak zehaztu eta onetsiko ditu. Arau eta protokolo horien egokitasunaz eta betetzeaz urtero informatuko dute beren txostenetan Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak, herrialdeetako kontu-aztertzaileek eta urietako kontu-aztertzaileek.

5. Hauek dira EAJ-PNVren ondarearen osagaiak:

a) edozein tituluren bidez eskuratu diren edo eskuratuko diren ondasunak, higigarriak zein higiezinak, eta eskubideak;

b) alderdikidetzaren kuota arruntak eta bereziak, nahitaezkoak izan edo borondatezkoak izan;

c) alderdikideen eta alderdizaleen ekarpenak;

d) herri-hautapeneko eta izendapeneko kargu publikoek derrigor eman behar dituzten kopuruak, haiek alderdikideak izan edo ez;

e) jasotzen diren jaraunspenak eta legatuak;

f) jasotzen diren dohaintzak eta eskuzabaltasunak;

g) Alderdiaren beraren jardueren etekinak eta Alderdiaren egoitzetan tradizioz egiten izan diren jardueren etekinak, Alderdiaren ondarearen kudeaketatik eratorritako diru-sarrerak, sustapen-jardueretatik datozen mozkinak, eta EAJ-PNVk bere helburu espezifikoetarako eman ahal dituen zerbitzuetatik lor daitezkeenak, zeinak zuzenean edo beraren mendeko organismo, entitate eta sozietateen bidez lortzen diren;

h) EAJ-PNVren hauteskunde-gastuak eta funtzionamendu arruntaren gastuak finantzatzeko ematen diren dirulaguntza publikoak, bai eta legez ezarri ahal diren ohiz kanpoko dirulaguntzak;

i) EAJ-PNVren jarduera instituzionaletik datozen diru-sarrerak, eta bereziki ganbera guztietan, batzar legegileetan, Batzar Nagusietan eta toki-administrazioetako organoetan eratutako taldeetatik eratorriak;

j) mailegu edota kreditu itunduetatik datozen funtsak.

125. artikulua.— 1. Euzkadi Buru Batzarrak Aberri Batzar arruntan ekitaldi bakoitzaren emaitza ekonomiko-finantzario kontsolidatuaren berri emango du, Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordeak nahitaez egin beharreko txostena aurkeztu ondoren, eta Aberri Batzarrean aurkeztuko du urteko aurrekontua, batzarrak onetsi dezan.

2. Kontuak ematean hauek aurkeztuko dira: Euzkadi Buru Batzarraren eta herrialdeetako buru batzarren urteko galera-irabazien kontua eta egoera-balantzea.

Ondore horietarako, ekitaldiko lehenengo bi hilabeteen barruan eta Aberri Batzar arrunta egin baino lehen, herrialdeetako buru batzarrek Euzkadi Buru Batzarrari urteko kontuak bidali beharko dizkiote, zeinetan beraien herrialdeko uri erakundeek sartzen diren. Herrialdeetako buru batzarren urteko kontuekin ere herrialde bakoitzeko kontu-aztertzaileek nahitaez egin beharreko txostenak bidaliko dira.

Euzkadiz kanpoko erakundeek, Euzko Gaztedik eta Helduek kontuak bidali beharko dizkiote Euzkadi Buru Batzarrari bi hilabeteko epe berean.

3. Uri erakundeek beren kontuak onetsi eta herrialdeko buru batzarrari bidali beharko dizkiote ekitaldiko lehenengo bi hilabeteen barruan, ahal dela lehenengo hilabetean, eta herrialdeko batzar arrunta egin baino lehen.

4. Urietako eta herrialdeetako erakundeek, aberri-erakundeak eta, hala behar denean, Euzkadiz kanpoko erakundeek, EGIk eta Helduek beren mendearen dauden organismo, entitate, fundazio, elkarte eta sozietateei urteko kontuak eskatu ahal izango dizkiete. Kontu horiek derrigor bidali beharko dira, ekitaldia itxi eta ondorengo hiru hilabeteetako epearen barruan, mendekotasun edo lotura organikoa denean edota indarrean dagoen legediak hala eskatzen duenean.

126. artikulua.— 1. Euzkadi Buru Batzarra EAJ-PNVren zuzendaritza-organismo gorenaren da, eta bera da erantzule subsidiarioa Estatuko Kontuen Auzitegiaren aurrean hauek direla-eta: Alderdiaren egoera finantzario guztiak, eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko urteko kontuak, betiere nahitaezkoa den kontsolidazio-mailan eta lege ezarritako epearen barruan.

2. Euzkadi Buru Batzarrarena izango da beraren webgunean edukiak argitaratzeko erantzukizuna, eta hori egingo du Alderdiak bere jarduketaren planaren, gardentasun eta gobernu onaren arloan, ezartzen dituen helburuak oinarri hartuta.

3. EBBk bere erregelamenduan zehaztuko du zein den kontabilitate-liburuak eramateko araubidea, betiere EAJ-PNVren estatutuaren xedatutakoaren arabera eta kasuan-kasuan aplikagarri den legediaren arabera.

127. artikulua.— 1. Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, Aberri Batzarra arruntaren erabaki batek urtero irizpideak finkatuko ditu hauek ezartzeko: uri erakundeek euren herrialdeko erakundeari eta beronek aberri-erakundeari eman beharreko gutxieneko diru-ekarpenak; izan ere, ekarpenok alderdikideen ordainketetatik edota beste diru-sarreretatik kenduko dira.

2. Nolanahi ere, uri erakundeek buru batzarren artekoan, herrialdeko batzarrean edo Batzar Nagusian duten ordezkaritza, eta herrialdeetako erakundeek Aberri Batzarrean duten ordezkaritza badaude erakundeek osatzen dituzten alderdikideen kopuruaren arabera, orduan, benetan ordaindu eta abenduaren 31n kontabilizatuta dauden kuoten kopurua bakarrik hartuko da kontuan. Ordezkaritza hori orduantxe geldituko da finkatuta urte osorako.

128. artikulua.— EAJ-PNVren buru batzarrei beren-beregi dagokie Alderdiaren ondarearen defentsa eta kudeaketa.

XIV. TITULUA

KOMUNIKABIDEAK ETA IRUDIAREN BITARTEKOAK

129. artikulua.— Euzkadi Buru Batzarrari dagokio EAJ-PNVren komunikabideen eta irudiaren bitartekoen politika orokorra.

Herrialdeetako buru batzarrei dagokie EAJ-PNVren komunikabideen eta irudiaren bitartekoen politika, betiere beraien herrialdeari dagozkion arazoetan, bai eta Euzkadi Buru Batzarraren erabakiak hartan betearaztea ere.

Uri buru batzarrari, urietako buru batzarren artekoari eta udalerria baino lurralde-eremu handiagoko buru batzarren artekoari dagokie EAJ-PNVren komunikabideen eta irudiaren bitartekoen politika, beraien udalerriari, bailara edo eskualdeari eta kuadrillari dagozkion arazoetan, bai eta herrialdeetako buru batzarren erabakiak hartan betearaztea ere.

130. artikulua.— Euskara izango da adierazpenetan eta prentsasurekoetan lehentasunez erabiliko den hizkuntza.

XV. TITULUA

ABERRI ESTATUTUEN ERREFORMA

131. artikulua.— Hauek behar dira Aberri Estatutuak erreformatzeko:

1. Euzkadi Buru Batzarrak ekitea, bai bere ekimenez, bai hauek eskatuta:

a) Aberri Batzarrak.

b) Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak.

c) Herrialde bateko batzarrak.

d) Herrialde bateko buru batzarrak.

e) Aberri Batzarreko hogeitaz batzordeak edo herrialde bateko erakundeak Aberri Batzarrean dituen ordezkari guztiek.

f) EAJ-PNVren uri erakundeen bostenak edo alderdikideen bostenak.

2. Erreforma-proiektuan beren-beregi adieraztea estatutuetarako proposatzen diren aldaketak.

3. Aberri Batzarrak gehiengo osoaz onets dezala, alderdikideei iritzia eskatu ondoren.

4. Batzar Nagusiak berronestea bertan egon eta botoa emateko eskubidea dutenen gehiengo osoaz.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.— Aberri Batzarrak, EAJ-PNVren erakundeak eragin eta biziberritze aldera, barkatu ahal izango die erakundeoi, estatutu hauetako artikulua batzuek ez betetzea, baldin eta hori beharrezkotzat hartzen badu, Euzkadi Buru Batzarrak helburu horretarako Aberri Batzarrari aurkezten dizkion jarduketaren planak garatu eta beteazaz.

BIGARRENA.— EBBk EAJ-PNVren Aberri Estatutuetan alderdi politikoaren arloan indarrean dagoen legediak eta unean-unean aplikagarri izango den legediak ezarritako behar besteko aldaketak egin ahal izango ditu, eta horren berri emango dio Alderdiaren Aberri Batzarrari. Aldaketa horiek balio osoa izango dute harik eta organo eskudunak berronetsi arte.

Xede horretarako, Euzkadi Buru Batzarrak EAJ-PNVren Aberri Batzarra presaz deituko du, eginiko aldaketa onetsi dezan edo ezetsi dezan.

HIRUGARRENA.— EAJ-PNVren desegiten bada, Aberri Batzarrak, une horretan aberri-eremuan eginkizunak betetzen dituen Kontu-aztertzaileen Aberri Batzordearen kontrolpean, ondarea likidatzeari ekingo dio inolako organismo edo agintaritzaren esku-hartzerik gabe, eta ondoren geratuko den azken ondare likidoa Alderdiaren helburuekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen baina irabazi-asmorik ez duen edozein entitateri eratziki ahal izango dio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Aberri Estatutuen erreforma honek kideen gehikuntza dakar Justiziako Aberri Epaimahaiarentzat eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordearentzat; bada, kideok gehituko dira, organo horiek osorik berritzeko egingo diren hurrengo hauteskunde-prozesuetan.

Justiziako herrialde-epaimahaien osaera gehitzeko, kide berriak aukeratu beharko dira aberri-estatutu hauek onetsi eta gehienez urtebeteko epean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

EAJ-PNVren IX. Batzar Nagusiaren hirugarren bilkuran aberri-estatutu hauek berronetsi eta gehienez urtebeteko epean, uri erakundeen uri estatutu edota uri erregelamendu guztiak automatikoki indargabetuta geratuko dira.

Euzkadi Buru Batzarrak behar diren erregelamendu-aldaketak sustatuko ditu indarrean dagoen barne-araudian aurreikusita ez dagoen guztian uri erakundeen antolaketa eta funtzionamendua zehazteko, betiere Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari eta Aberri Batzarrari hori guztia jakinarazi ondoren.

ERANSKINAK

IKURRA:

Haren ikurra, eranskinetan emana, bi elementuk osatzen dute eta hauek dira: anagrama, koloreko bolak irudikatua, eta logotipoa, EAJ-PNV hitzak osatua; horrek babesgune bat izango du EAJ-PNVren markaren inguruan; gune horrek ez du beste elementu eraldatzaile ikusgarriarik izango, ez testurik, ez marrazkirik, ezta apaingarriarik ere. EAJ-PNVren irudi ikusgarriak haren historia osoan ordezkatu duten betiko kolore berdea, zuria eta gorria eramango ditu. Anagrama berdetik gorrira doa, eta logotipoak kolore beltza izango du.



Bozketa-orrietan, baimenduta dago ikurraren kolore bakarreko bertsioa erabiltzea; bertsio horrek tinta bakarreko ikurra ordeztu du, eta positiboan edo negatiboan joan daiteke.

SIGLAK: EAJ-PNV

WEBGUNEA ETA POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA:

Webgunea hau da:

www.eaj-pnv.eus

Helbide elektronikoa hau da:

ebb.idazkaritza@eaj-pnv.eus

BATERAEZINTASUNEN LAUKIA

UU. BB. Buru batzarren artekoa			Bai	Kentzeko modukoa	Ez	Ez	Ez	Erabatekoa
			Herrialdeko batzarra					
Herrialdeetako buru batzarrek	Bai	Kentzeko modukoa			Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa
	Herrialdeko batzarra				Presidenteak izan ezik			
Euzkadi Buru Batzarra	Ez		Erabatekoa Presidenteak izan ezik			Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa
Herrialdeko batzarreko ahalduak	Ez		Erabatekoa					
Aberri Batzarreko ordezkariak	Ez		Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa
Epaimahaiak eta ABZG	Erabatekoa		Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	
	UU. BB. Buru batzarren artekoa		Herrialdeetako buru batzarrek	Euzkadi Buru Batzarra	Herrialdeko batzarreko ahalduak	Aberri Batzarreko ordezkariak	Epaimahaiak eta ABZG	
Alkatea eta zinegotziak < 20 000 biztanle	Erabatekoa U. B. > 100 alderdikide		Ez	Ez	Ez	Erabatekoa Alkateak	Erabatekoa	Erabatekoa
	Uri batzarra U. B. < 100 alderdikide					Ez Zinegotziak		
Alkatea > 20 000 biztanle	Erabatekoa U. B. > 100 alderdikide		Erabatekoa	Erabatekoa	Ez (hiriburuak izan ezik)	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa
	Uri batzarra U. B. < 100 alderdikide							
Zinegotziak > 20 000 biztanle	Erabatekoa U. B. < 100 alderdikide		Erabatekoa (gobernuan)	Erabatekoa	Ez (hiriburuak izan ezik)	Ez (hiriburuak izan ezik)	Erabatekoa	Erabatekoa
	Uri batzarra U. B. < 100 alderdikide		Herrialdeko batzarra (oposizioan)					
Zuzendaria edo kargu baliokidea udalean (+ 116.1 art.)	Erabatekoa		Ez	Ez	Ez	Ez	Erabatekoa	
Ahaldun nagusiak eta Nafarroako Gobernuko presidentea	Erabatekoa		Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	
Foru-diputatuak, eta Nafarroako Gobernuko kontseilaria, eta Pirinio Atlantikoetako eta Akitania Berriko kontseilaria	Ez		Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	
Zuzendaria, zuzendari nagusia edo baliokidea foru-aldundietan edo Nafarroako Gobernuan (+ 116.2 art.)	Ez		Erabatekoa	Bai	Kentzeko modukoa	Erabatekoa	Ez	Erabatekoa
				Aberri Batzarra				
Lehendakaria	Erabatekoa		Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	
Eusko Jaurilaritzako sailburuak, Akitaniako erregioko kontseilaria	Ez		Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	
Sailburuordea, idazkari nagusia edo baliokidea Eusko Jaurilaritzan (+ 116.3 art.)	Ez		Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	
uzendaria edo baliokidea Eusko Jaurilaritzan (+ 116.3 art.)	Ez		Bai	Kentzeko modukoa	Erabatekoa	Ez	Erabatekoa	Erabatekoa
Batzar Nagusiak eta Nafarroako Parlamentua	Ez		Bai	Kentzeko modukoa	Ez	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa
			Herrialdeko batzarra					
Eusko Legebiltzarra	Ez		Bai	Kentzeko modukoa	Bai	Kentzeko modukoa	Erabatekoa (< 100 alderdikideko UU. BB. izan ezik)	Erabatekoa
			Herrialdeko batzarra		Aberri Batzarra			
Kongresua, Senatua, Frantziako estatuko Parlamentua eta Europako Parlamentua	Ez		Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa	Erabatekoa

Bateraezintasunen laukian ez dira kontu-hartzaileak agertzen, ez eta herrialdeetako buru batzarrei edo Euzkadi Buru Batzarrai atxikitako langile aktiboak ere; izan ere, horiek Aberri Estatutuen 111. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan ageri dira hurrenez hurren.